# COFFE SNEAKIN

X.Galarreta



**Lege-gordailua: SS-200/06**

Liburu honetan guztira hamabi lantxo bildurik daude, denak nahiko laburrak, luzeak baino gehiago. Batzuk (gehienak) euskaraz daude eta beste batzuk gaztelaniaz. Prosa, poesia, ipuinak, herri-olertiak… Denetik piska bat. Azken finean, egilearen gustuak islaturik daude liburuan, egileak genero guztiak maite baititu, horietako bakar baten aldeko hautua egin ez arren. Liburua irakurtzen ongi pasatzea opa dizut; edo, behintzat, une batez ere ez zaitzala gaizki sentiaraz.

***

En este libro hay reunido un total de doce trabajos, todos ellos más bien breves y redactados unos en euskara (la mayoría) y otros en castellano. Prosa, poesía, cuentos,… Un poco de todo. Lo que no deja de ser un reflejo de los gustos del autor, inclinado hacia todos los géneros pero al mismo sin decidirse por ninguno en especial. Espero que lo pases bien leyendo este libro y que en ningún momento te pueda hacer sentir mal.

## ESPIRITUAREN POBREZIA

Mintzatzen da... Egun guztian mintzatzen da. Baina esateko gutxi dago. Gure mixeria behin eta berriro ekartzen dugu hizpidera. Beharrezkoa balitz bezala! Ezintasunak bultzatzen gaitu honela jokatzera. Ezin dugunean, mintzatu egiten gara. Ez dugu ezer esaten, baina mintzatu egiten gara. Hitz egiten duten animaliak bezalakoak gara. “Euskal” hitzarekin hasten den guztia izugarri gogoko dugu. *Euskaltasunarekiko* dugun kezka erakusteko modu bat da; baina gure pobrezia erakusteko modua ere bada (mundua birsortzeko gai ez garenez). “Gutxiago hitz egin eta gehiago egin”. Esaterako, bizitzen aritu gaitezke. Ez da gutxi. Bizi garenean, mundua sortzen dugu (nahi genuen mundu horixe). Baina errazagoa da negar egitea, gutaz kupidatzea. “Etsaia da izugarria, baina garesti ordainduko du”. Ergelkeriak. Gu geu gara daukagun etsairik okerrena. Nire herria maitatzeko biderik onena aurkitu dudala uste dut: existituko ez balitz bezala jokatzea. Sorgin gaitezen garenagatik, izan nahi genukeenarengatik baino gehiago. Zugarramurdira itzultzeko modu bat da. Eta kobazuloan ordenagailuz eta mota guztietako tresneriaz inguraturik, egin dezagun geure munduaren alde baina aldi berean ohartu ere egin gabe ezeren alde/ezeren aurka ari garenik. Horixe aldarrikatu nahi nuen: inongo mugimenduan parte ez hartzeko eskubidea. “Zerbait egitea” modurik onena delako, mugimendu guztietan parte hartzeko. Ez dut ezer

partekatu nahi, neronen ibilbidea baizik. Hitz txikikoei buruz eta hitz handixei buruz badakidalako. Eta hau, jaun-andreok, ez da poesia. Hartu hitz hauek nahi bezala. Baina, mesedez, ez hartu “mugimendu”tzat. Ez naiz kristaua; beraz, ez dut Jesukristo bezala amaitu nahi: berpiztuta. Gerora, argi bat ikusiko dugu tunelaren amaieran, baina iristen garenerako, bonbila itzali egingo da, ziur (agortuta). Hortaz, tunelean jarraitu beharko dugu. Satorrak gara. Kilo askoko satorrak, bi hankadunak, betaurrekodunak... Lurrean aztarrika aritu, besterik ez dugu nahi. Horixe da gure patua. Euliak kakarekin nola, halaxe diogu jarraitzen geuk ere gure senari. Eskerrak paper higienikoa asmatu dugun. Dena den, abilak gara gure burua kakazten. Ergelagoa banintz (eta banaiz!), politologoa egingo nintzateke. Eta nire mokordoak sinatu egingo nituzke, Durangoko azoka iritsi dela aprobetxatuta. Erraza jarri diot nahi duenari (gizaseme batzuek gauza errazak maite dituztenez). Sinplifikazioa naiz, haragi bihurtua. Beste batzuek, ordea, bide askozaz konplexuagoak hautatu dituzte... eguraldiari buruz hitz egiteko. Baina nik nahiago dut basamortuari begira zegoen arabiarrak zioena errepikatzea: “Ez da nire errua basamortua hor egotea”. Eta gainera, nire errua balitz ere, zer irabaziko nuke aitortzarekin: dominaren bat? euskal artaldearen estimazioa? lanpostu bat administrazioan? Eta administrazioan lanean ari direnen aurka ez dut ezer. Benetan. Hitz egiteko modu bat da. Besterik ez. Tira, azkenean, ahaztu egin zait nire herriari buruz hitz egitea. Hainbeste

arazo izanik eta hainbeste irtenbideren beharra izanik, ahaztu egin zait nire herriari buruz hitz egitea! Barkaezina. Ni bai arrunta, zirtzila eta petrala! Baina non arraio utzi dut nire elkartasuna! Nonbait galdu zait. Auskalo non. Batzuk nire alde den-dena ematen, eta ni bitartean hementxe: euliei, kakei eta satorrei buruz hitz egiten. Nire marka gainditzen dudanean, beranduegi izango da. Hilik egongo naiz. Ez dit ezerk inportako. Bizitza igarotzen delako. Dudan ziurtasun bakarra hori da. Ez ahal da beranduegi izango konturatzen garenerako! Baina balitz ere... niri bost. Nire gelan itzal asko daude. Eta zer-edo-zer ikasten dut bakoitzarekin. Esaterako, errealitatean nola bizi mamu baten modura baina benetako mamua izan gabe. Badakit hitz hauek gizaseme ondradu eta kalamitoso eta liskarzale askoren odola ozpinetan jarriko dutela. Ba, horra nire proposamena: olioarekin nahastuta presta dezatela entsalada on bat eta bide batez praktika dezatela antropofagia, arte nobleetan jatorrena da eta.

## ¡OH, PALESTINA!
## (12 poemas)

### 1

No sé qué pasa.
De repente, todo el planeta
hierve de terroristas.
Pinochet, la Dictadura Militar Argentina,
Franco, Hitler, Sharon, Hussein, Bush…
Todos eran buenas gentes que luchaban
contra el terrorismo. Lo que ocurre,
es que no les entendíamos. Eran como
los poetas pastoriles, baluartes de incomprensión
y bondad. Lo hacían por nuestro bien,
pero no nos dábamos cuenta.
Así sucede ahora en Palestina.
Sharon y sus dover-nazis
tienen licencia para asesinar
a terroristas (según sus cálculos,
deben de ser unos tres millones y medio
—todos los que viven
en Gaza y demás territorios ocupados—;
más los ocho millones de palestinos
obligados al exilio; más los millones
de árabes que se solidarizan con ellos;
más los millones de europeos que
otro tanto hacemos; más todos los millones
de personas de bien repartidas a lo largo del
planeta y capaces aún de sentir solidaridad).
Todos terroristas.

De aquí a poco, van a tener que inventar
un nuevo término para sustituir a la
palabra "terrorista", porque se anda
ya más manoseada que una actriz porno.

## 2

Janin[1]. Terminantemente,
te llevamos en nuestro corazón. Janin,
la terquedad de la injusticia y de la
parsimoniosa burocracia europea.
Ved para qué valen las Naciones Unidas:
para que unas docenas de burócratas se ganen
—demasiado fácil y abultadamente— el sustento.
Janin gravita en torno nuestro;
es un aviso a la humanidad.
Los mensajes no hay que buscarlos en las estrellas;
hay que buscarlos aquí, en la Tierra,
en la Tierra que grita, en Janin que tiembla
bajo sus ruinas, en las entrañas
de lo que hasta ahora era una población viva
y hoy sólo es un "paisaje lunar".
Y todo gracias a Sharon, a su Gobierno,
al pueblo que da su voto a Sharon.
Y gracias también a ti y a tu silencio,
y a tu indiferencia.
He ahí el resultado:
una fuerza nazi de ocupación, despiadada,
inhumana...
Y mientras tanto, en las Naciones Unidas

---

[1] También Jenín o Yenin (campo de refugiados devastado y masacrado por los militares nazi-israelíes).

se habla, se habla, se habla tanto…

En Janin, sólo el resentimiento queda en pie.
………………………………

Y no sólo en Janin.

**3**

Y tú, Simón Peres,
devuélvenos el Nobel,
porque no lo mereces.
Sinvergüenza… cínico… hipócrita…

**4**

Mirad, en las Naciones Unidas
están de enhorabuena:
celebran la concesión de una
nueva medalla, de una estatuilla de plata,
y chequera en mano
aplauden rabiosamente al último Nóbel,
a quien premian
sus denodados esfuerzos por la paz.

Mientras, en Palestina, una vez más sale
y muere el sol.

**5**

Y al tiempo que en Janin
sucedía lo que sucedía,

los cascos azules de la ONU
sacaban brillo a sus zapatos.
Y nuestros dirigentes, sacaban brillo a su lengua.
Y en Janin… no podían ni enterrar a sus muertos.

**6**

¡Ayer tuve un sueño!
¡Soñé que Europa ardía!
¡Soñé que las embajadas de Israel
eran proclamadas casas de la cobardía!
¡Y que a cada muerto en la intifazada,
una piedra atravesaba el aire aquí:
en París, en Londres, en Barcelona,
en Viena, en Bilbo, en Praga, en Ankara,
en Oslo, en Donostia, en Roma, en Berna, en Moscú,
en Helsinki, en Gasteiz, en Atenas, en Amsterdan,
en Estocolmo y en Iruña y en Madrid y en Budapest
y en Bratislava salían los jóvenes, los viejos,
los niños y los mayores
con piedras en la mano salían
a exigir se detenga tanta barbarie
y si no, aténganse a las consecuencias.

Ésa es la Europa en la que yo creo
y no en la de los banqueros.

**7**

"Haiez". Ése es su nombre. "Puesto de control".

La mujer da a luz en el puesto de los soldados
israelíes.
La ambulancia le esperaba a unos pocos metros.
Pero no la dejaron pasar.
El niño nació
(otros no tuvieron tanta suerte)
La madre vivió
(otras no tuvieron tanta suerte).
Y para no olvidar nunca,
llamaron al niño “Haiez”, que en árabe
significa “Puesto de Control”.
Dice su padre que tal vez algún día
pueda perdonar; pero que nunca podrá
olvidar: la humillación, el rostro de los soldados...
Ni nosotros tampoco.
No sé si esto es un poema.
Lo único que sé
es que ya estaba escrito
cuando lo encontré.

**8**

La saliva en Europa corre a raudales
y a raudales también la sangre en Palestina
la insolidaridad de los civilizados
deja atónitos a los bárbaros
y en medio de tanto dolor
de tanta sangre
de tanta indiferencia
nuestros políticos nos piden el voto
y nosotros se lo damos,
pacíficos que somos.

**9**

Hitler ha vuelto a la vida.
Y lo ha hecho entre quienes más odiaba:
los judíos.
Ha hecho del estado de Israel
su pueblo elegido, su nueva raza aria,
la mejor de la tierra.
Hitler ha vuelto de entre los muertos,
muy cerca de Jerusalén, dicen,
en la tierra donde ya otros vivieron
y sufrieron el calvario.
"Hitler is alive" en Israel.
En el nuevo muro de la vergüenza
ondean cruces gamadas
pintadas en rojo y negro
(el color de la sangre y el luto).
Hitler ha engordado un poco,
es cierto. Y ha sustituido su
vieja aviación por otra más
al uso (helicópteros apache
que, por cierto, llevan el nombre
del que también fue otro gran
genocidio).

**10**

Muy arrimaditos se andan
Israel y los Estados Unidos.
"Dime con quien andas,
y te diré quién eres".

**11**

Europa,
la Vieja Zorra Sifilítica,
celebra el decimoquinto centenario...
En fin. Ya sabéis. Europa,
la Vieja Zorra Sifilítica,
celebra su decimoquinto centenario...
Hubo un buffet, concierto con el gran director ***,
y todas las zorras palurdo-tituladas aparecieron engalanadas
con los mejores trajes de los grandes modistos:
***, ***, ***, ***, ***...
Las acompañaban sus chulo-putas, de etiqueta.

En Palestina,
las familias se sientan
sobre los escombros
de sus casas
recién destruidas por las nazi-israelíes.

Y en Europa, los valses de Straus lo llenan todo.

Al menos me queda mi despecho, mi desprecio, mi solidaridad.

Anda, hijo de puta, corre a dar el voto.

**12**

Transcurre la manifestación.

Son jóvenes, adolescentes. No están armados.
No hay policías. No hay pelea. No hay disturbios.
Llegan los helicópteros y disuelven la manifestación,
con misiles.
Hay muertos. Muchos muertos.
Sus fotos aparecen en los telediarios. Los rostros de los muertos,
de los heridos. Quienes disparan los misiles nunca aparecen en los telediarios. Todos sabemos porqué.
Ellos también lo saben. Su rostro es el del Capitán Astid. Siempre es su mismo rostro.
..................................................................
Llego a Ginebra. Y al pasar ante la ONU, vomito.
Un empleado acude raudo a limpiar. Todo queda límpido, brillante, como si nunca
hubiera vomitado.
...................................................................
A veces pienso, cuándo los marineros del Protopkin (corrígeme tú la ortografía, si tanto te importa), cuándo volverán a sublevarse.
Si os hace falta un fogonero...

**UMOREZKO SKETCH-AK**
**(telebistarako bereziki pentsatuak)**

[Eszena: pilotu bat agertzen da helikoptero kabina batean; bere helikopteroak arazoak ditu, matxuratu da eta; kontrol dorreari laguntza eskatzen dio].
Help my! Help my! Nire helikopteroa ez dabil oso fin. "Zer du, ba?" Helizeak utzi dio bueltak emateari. Larria da, ezta? "Pssss". Aid my! Aid my! Lurrerantz noa bertikaltasun handiz! Izango da helize madarikatu honengatik, seguru. "Nahi baduzu, mekanikoarekin jarriko zaitut". Ez dago astirik orain. Non utzi didazue paratxuta? "Zer da hori?" Jauskailua, joder! "Itxoin, kode liburuan begiratuko dut". *Paracaídas*, dios! Non dago *paracaídas*? "A, hori! Esan lehenago. Hor zure atzean egon behar luke, kaxa gorri baten barruan". (...) Kaxa gorri horren barruan kondoiak baino ez daude. "Zer? Kondoiak!!! Orduan, zer arraio bidali dugu Ihesaren aurkako laguntzan? Zure para... hori?" Eta orain zer? "Ez dakit. Koronelari galdetuko diot" (...) "Kaixo, seme. Koronela nauk. Egoera zaila duk, benetan". Eskertzekoa da zure laguntza, Koronela. "Nire esku badago zerbait egitea..." Bai, esan zure emazteari kondoi piloa dudala, elkartzen garenerako. "Afusilatuko haut honengatik!" Egon ixilik, adardun hori. "Hau oso garesti ordainduko duk!". Zuek garestiago, helikoptero berria. "Armadatik botako haut!". Nik zure andrearen ohetik bota zintudan bezala, ezta?

(...) Itxoin, helizea bueltak ematen hasi da! badabil berriro! badabil berriro! (...) Zera, koronela, ez zenuen gaizki hartuko, ezta?

***

Txirrindulari bat agertzen da telebistako pantailan, baina gerritik gora bakarrik ikusi behar zaio. Txirrindulari arropak janzten ditu; bizikletaren heldulekuari gogor heltzen dio; egiten dituen ahalegin heroikoak aurpegian islatzen zaizkio… Off-ean, txirrindularien lasterketa telebistaz kontatzen duen esatariaren ahotsa entzuten da; off-ean beti. Esatariaren ahotsak grina handiz kontatzen du txirrindulariaren ihesaldia, txirrindulari taldeari atera dion abantaila, portuko igoeraren ahalegin gogorra, helmugara iristeko falta diren azken kilometroak (emozio handikoak, zeren beste txirrindulari batzuk azaltzen hasiak baitira); txirrindularia burua atzerantz bueltatzen du behin eta berriro, atzetik datozkionak kontrolatzeko. Azkenean, helmugara iristen da! bera da irabazlea! Esatariak hitz ederrak ditu txirrindulariarentzat! Txirrindulariak besoak jasotzen ditu helmuga zeharkatzean, garaile… Orduan, plano osoa agertzen da telebistan: *txirrindularia* bizikleta estatiko batetik jaitsi eta Frantziako Tourra ematen ari zen telebista itzaltzen du (sketch-a garatu ahala, zenbaitetan telebistako irudiak ere tartera daitezke, "errealitate" ukitua areagotzeko).

***

Bi aitona-amona. Itxuraz onberak, bihotz onekoak… Bata pipatik erretzen; bestea puntua egiten. Halako batean, txirrinak jotzen du eta amona jaikitzen da atea irekitzera. Beheko auzokoa da bere bost-sei urteko semearekin. Erosketak egitera joan behar duela eta ea inporta zaien umeaz arduratzea; unetxo bat baino ez dela izango; berehala dela itzultzekoa (ahal izanez gero, mimika bidez eman guztiori aditzera; edo bestela, azpitituluak erabiliz, posible ez denean —sketch honek mutua izan behar du—). Umea bakarrik aitona-amonekin. Hauek gozo-gozo hari begira, samurtasun handiz, onberati… Umea pozik, lasai, etxean bezala. Baina, halako batean, aitona-amonek begiz elkarri keinu egin eta haien portaera aldatzen hasten da. Begiradak zorrotzak, hotzak, maltzurrak dira orain; mihinaz kliskadak ateratzen dituzte; begirada gosetiak zuzentzen dizkiote ume gizarajoari. […] Planoz aldatu; beste eszena batean […]. Aitona-amona sukaldeko mahai inguruan eserita agertzen dira, biak ase eta beteta diruditela, aitona txotx batekin hortz-haginak garbitzen, amona zaharra korrok txikiak eginez, bien sabelak irtenda arropen azpian… Txirrina jo eta amona jaikitzen da atera irikitzera. Umearen ama sartzen da. Amonak sukalderaino laguntzen dio. Hantxe, mahai gainean, ume baten hezur eskeletoa agertzen da bandexa batean. Ama garrasika hasten da. Aitona-amonak barrez eta bera imitatzen hasten dira. (Ez ahaztu hau ez dela terrorezko sketch-a, umorezkoa baizik. Beraz, aitona-amonen

interpretazioa, gertaerak, amaren garrasiak, e.a., den-dena umorez aurkeztu eta antzeztu egin behar da)

***

Jatetxe batean. Gizona mahaian eserita, menua noiz ekarriko zain. Zerbitzaria ez dator menuarekin. Haren ondoan pasatzen denean, dei egiten dio, baina hark soin gainetik erdeinuz begiratu eta aurrera jarraitzen du beti, jaramonik egin gabe. Zerbitzariak itxura petrala du: egunetako bizarra, arropa zikina, ibilera baldarra… Oro har, mimika da garrantzitsuena, bien arteko "komunikazioan". Azkenean, menuaren karta ekartzen dio. Zerbitxariak txiklea mastekatzen du arreta handirik gabe. Gizonak lehen platera eskatzen dio. Telebistan, eskatu duen azpititulua agertzen da: zopa. [Benetako hizketarik ez da inoiz erabili behar. Hitzen edo esaldien ordez, beti zurrunba elektroniko bat entzun behar da, eta behar izanez gero, azpititulua pantailan]. "Zopa" entzunda, zerbitzariak nazka imintzio bat egingo du. Hamar minutu igarotzen dira, zoparekin agertzen den arte. Zopa-ontziko tapa altxatu baino lehen, arropa esekitzeko pintza batzuk atera eta horiekin sudurrak tapatzen ditu. Gero, tapa altxatu eta espumadera batekin hasten da zopa platerera isurtzen. Baina zopak ematen dion nazka dela eta, burua bestaldera jiraturik daukala ez da konturatzen. Beraz, bezeroak, pazientzia handiz, ohartarazi behar dio burruntzaliaren ordez espumadera ekarri duela.

Zerbitzaria ustekabeaz jostaturik barrez hasten da eta badoa sukaldera tresna egokiaren bila. Denbora aurrera doa. Bezeroa desesperatu egiten da. Zerbitzaria burdintzalia eskua itzultzen denean, zerbitzaria bizarra kentzen amaitzen ari da. Zerbitzariak keinuka esaten dio zauritxo bat egin duela kutxilarekin eta hatza aurpegian jartzen dio finezia gutxirekin. Bezeroak eskua apartatzen dio, haserre. Hasten da, beraz, burduntzaliaz zopa zerbitzatzen. Bezeroak galde egiten dio ea tropiezorik ba al duen [Zurrunba elektronikoa eta azpititulua: "Ba al du tropiezorik?]. Orduan, zerbitzariak burduntzalia zopa-ontzian sartu eta, berriz ateratzen duenean, burduntzalian arrata handi bat agertzen da. Bezeroa espantu-imintzioak egiten hasten da. Zerbitzariak galde egiten dio ea ez duen tropiezorik nahi [Zurrunba elektronikoa eta azpititulua: Jaunak ez al du tropiezorik nahi orain?]. Besteak ezetz, noski, ero moduan. Zerbitzariak arrata poltsikoan gorde eta zopa zerbitzatzen amaitzen du. [Hurrengo eszena hasten da - Bigarren platera. Nahi izanez gero, eszena hau geroago egin daiteke, hau da, sketch hau hiru skech-etan egin daiteke, beste batzuk tarteratuz]. Bigarren platera eskatzen dio [Zurrunba elektronikoa eta azpititulua: Oilaskoa]. Zerbitzaria barrukoak bota beharrean hasi eta sukalde alderantz galtzen da, beti bezala. Zerbitzaria oilaskoa ekartzen agertzen denean, bezeroa armiarmaz josita dago. Zerbitzariak soinean daraman trapu zikina erabiliz armiarmak kentzen hasten zaio, trapuarekin kolpe gogorrak ematen eta abar. Armiarma batzuk

ere ikus daitezke, ihesean. Bezeroak ea oilasko ona den galdetzen dio. [Zurrunba elektronikoa eta azpititulua: Oilasko samurra al da?]. Une horretan, txakur bat agertzen da eta zerbitzariak izterretariko bat botatzen dio, aldi berean esanez: Bai, bai. Begira txakurra, zer gustura jaten duen (esaldia azpitituluan, beti bezala). Bezeroa desesperatu egiten da. Eta azkenik, postrea. "Natilak". Oraingoan, bezeroak liburu lodi bat ateratzen du (esaterako, On Kixote). Zerbitzaria postrearekin itzultzen denerako, azken orria bukatzen ari da. Postrea mahaian utzi eta alde egitekotan dagoenean, bezeroak ohartarazten dio kanela falta dela. Orduan, zerbitzariak kanela hautsa ateratzen du poltsikotik eta hautsa botatzen du (poltsikotik ez du hauts flaskorik atera, hautsa bera baizik). Bezeroa harriduraz eta etsita begiratzen dio. Natilak bukatzear dituela, sukaldaria eta zerbitzaria agertzen dira, sesiotan. Haien arteko hizketaldia entzuten du bezeroak (Zurrunba elektronikoak eta azpitituluak: Sukaldaria: "Natilak egiteko sobreak saguak akabatzeko potean utzi dituzu, memelo horrek!"; Zerbitzaria: Ah, bai? Eta orduan, non utzi ditut saguak akabatzeko sobreak?]. Biek elkarri begiratzen diote eta begirada bezeroaren natila katiluan finkatzen dute. Bezeroak —eztabaida osoa entzun baitu— biei izuturik begiratu, natila katiluari gero, eta atzeraka erortzen da zerraldo.

**Auzoko ez-solidario eta soportaezin bihurtzeko hainbat aholku**

? Txakurra baldin baduzu, eduki ezazu balkoian beti, ordutan eta ordutan zaunka eta zaunka, etengabe. Auzokoak horretarako daude: zure txakurra soportatzeko.

? Mutil-neska gaztea bazara, aukera ezazu zure herriko etxarte isil, baketsu eta erdi-ezkutu bat, eta goizeko 10etatik goizaldeko 2ak arte bertan igaro itzazu zure bizitzako urterik onenak, eskolako porrota zer den mundu guztiari jakinarazten: egun osoan ohiuka, mozkortzen, hormak zikintzen, zaborra nonahi barreiatzen, goiz jaiki behar dutenei loa galarazten, familia askoren bakea hondatzen, eta oro har, ume txikiei erakusten zer den ganorarik gabeko gazte bat izatea.

? Motorra baduzu, ken edo truka ezazu isilgailua (lasai, inork ez dizu isunik jarriko eta).

? Neguan, gauez, kotxea bustitzea-edo nahi ez baduzu, aparka ezazu arkupeko espaloian (beti dago baten bat). Eta zu lasai, e?, hori ere doanik aterako zaizu. A, eta ez kezkatu espaloiko baldosoak pitzatzen badira edo

koipez kaka eginda gelditzen badira, inork ez dizu konturik eskatuko eta.

? A, eta autorako atoi edo erremolke txiki bat izan nahi baduzu baina non gorde ez badaukazu, zu lasai: uztazu kalean, eta ez kezkatu. Udaltzainei, alkateari eta zinegotziei bost axola zaie eta.

? Etxeko telebista eta musika-aparatuak piztean, jar ezazu bolumena ahalik eta altuenik. Horrela, mundu guztiak jakingo du zeinen gustu ona daukazun. Kontuz, gero: aurikularrak ez erabili inoiz, gorra geratzeko arriskua baitago (batzuk elektrokutatu ere egin omen dira).

? Ez birziklatu ezer (handi-mandiek bete dezatela Kiotoko ituna).

? Autoak espaloira ez igotzeko jarritako oztopoak (burdinazko barrak) bota itzazu (erakuts oinezkoei haien lekua zein den).

Aholku hauek eta beste antzeko batzuk betez gero, “Izorratu auzokoa” lehiaketa irabazteko aukera ezin handiagoak izango dituzu. Hona saria: bidaia-txartel bat (joanekoa bakarrik) Katmandu bisitatzera joateko. Anima zaitez!

***

*Gizakia ez dator tximinoarengandik*
*Tximinoa da gizakiarengandik datorrena*

# HERRI-OLERKI ZAHARRAK

## 1.-) Alos-Torrea (herri olerkia)

Alos-torrea bai, Alos-torrea;
Alos torreko zurubi luzea!
Alos-torrean nengoanean
goruetan, bela beltzak
Kua! kua! kua! kua! leioetan.

Etxe eder leio onetan
enaiz sartu zazpi urte auetan;
eta zortzigarrenean,
Aita Beltran'en iltzean.
Amandrea nerea nitzaz
bi erdi egin zanean
mila oilo il ziran
ezkaratzean,
zazpi zezen korritu ere
enparantzean.

Ni ere ba-nengoen
lumatxo artean,
eta nere ama andrea
urre-gortiña artean.
Gero Bidania guzian
bat zan erorik
eta zororik;
Aita Jauna nereak aura

senartzat eman dit;
baiña ez nuke trukatuko
obeagoagatik.
Aita Jauna nereak
niri eman zidan
iminian dotea;
amandreak ere ixilik
bere partea.
Lenen gauean
begiak, biotzak, loen mendean,
baita berriz ere bigarrenean;
irugarrena igaro baño len
ondo poztu ziñan, Alos-torrea,
eldu zalako neregan semea.

Alos-torrea bai, Alos-torrea,
Alos-torreko zurubi-luzea!
Alos-torrean nengoanean
goruetan, bela beltzak
kua! kua! kua! kua! leioetan.

Andik jaiki eta
urre-goruaz jo nuan;
baiñan andik laister
berri gaiztoak jo ninduan.
Zaldunak esan zion:
—"Uxo, ixo!, zaldun
odol txarreko gazeta,
ala ere gutxiago zan
zure eginpidea".

Aizpa ederrak or daude

ederrik eta galantik,
atz ederrak eraztunez beterik,
ez daukatela begian negarrik.
Amandreari ere bai
poza dario.
Nere biotzari bakarrik
mindura jario!
Aita Jauna nerea
Gaztela'n zanean,
ixil askorik jaio zan
Alos-torrean semea;
eta alaere ixilagorik dago bakean,
azitzen Zarautz aldean,
gure jatorriaren loitukerian.
Ai, au mindura beltza!
Au nere lotsa!
Alabak negarra ta
Aitak lur otza!

Zeinek loitu zaitu,
Alos-torrea!
Ai, nere Aita maite,
Aita maitea!
Iltzea ondo egin dezu,
Aita Jaun maitea!

## <u>2.-) Bereterretxen kantoria (herri olerkia)</u>

Altzak eztu bihotzik,
ez gaztanberak ezurrik…
Enian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik.

Andoze'ko ibarra,
ala zer ibar luzea!
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

Lersunak lerro-lerro bidian ba-doazi,
beruaren lekurat, hotzaren ihesi…
Ni ere beti penaz beharko naiz bizi,
zonbait aho-kirets nik beharko iretsi!

## **3.-) O Pello, Pello (herri olerkia)**

O Pello, Pello!
logale nik eta
jinen niza oherat?
—Irun ezan eta
gero, gero, gero,
irun ezan eta
gero, gero bai.

O Pello, Pello!
irun diat eta
jinen niza oherat?
—Astalka zan eta
gero, gero, gero,
astalka zan eta
gero, gero bai.

O Pello, Pello!
astalkatu diat eta

jinen niza oherat?
—Harilka zan eta
gero, gero, gero,
harilka zan eta
gero, gero bai.

O Pello, Pello!
harilkatu diat eta
jinen niza oherat?
—Irazki zan eta
gero, gero, gero
irazki zan eta
gero, gero bai.

O Pello, Pello!
irazki diat eta
jinen niza oherat?
—Jos ezan eta
gero, gero, gero
jos ezan eta
gero, gero bai.

O Pello, Pello!
josi diat eta
jinen niza oherat?
—Argia dun eta
bihar, bihar, bihar,
argia dun eta
jinen hiz bihar.

## 4.-) Sautrela - Bernat Dechepare (1545. urtea)

O Heuskara, lauda ezak Garaziko herria,
Zeren hantik ukhen baituk behar duyan thornuya
Lehenago hi baitintzan lengoajetan azkena,
Orai aldiz izanen iz orotako lehena.

Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,
Bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen,
Zeren ezein skripturan erideiten ezpaitzen;
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen.

Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruya,
Ezi huyen lengoajia izanen da floria.
Printze eta iaun handiek orok haren galdia,
Skribatuz hal balute ikhasteko desira.

Desir hura konplitu du Garaziko naturak
Eta haren adiskide orai Bordelen denak.
Lehen inprimitzalia heuskararen hura da;
Basko oro obligatu iagoitikoz hargana.

¡Etai lelori bailelo leloa zarai leloa!
Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara.

DEBILE PINCIPIUM
MELIOR
FORTUNA SEGUATUR

**5.-) Nik ez dut ehor maite - Arnaldo de Oihenart (XVII. mendea)**

Nik ez dut ehor maite zu beizi,
zuk zeren nahi nuzu ireizi?
Engoitik ordu zinuke kontu,
eta nizaz enuki kontu,
nai ez ba'nuzu net hil-urrhentu,
nola bai-nuzu ia hurrentu;
ezi bihotza, zu beti hala
inkusiz gibel zauztadala,
hotz-arriturik orai hil-hila,
hoboro nitan ez dabila.
Bana zuk nahi ba'duzu sarri
hartzara piztu eta iratzarri,
nonbait egizu, Jainkoaren partez,
inkus zitzadan zenbait artez:
bana zureki nahi nikezi
ez zizan nehor zuhaur bezi,
eta ikuslerik ageri ez zizan
lekutara zindiaurizan.

Batzutan, luzez luzez oroituz,
zure bihotz gogorra goituz,
norabait jitez hitz ba'didazu,
hura ere gero ez dadukazu.
Nonbait bi-biak heltzen ba'gira,
zu beti lehiatu zira;
orduan, bi hitz zuri erraiteko,
zure eskuari ba'naxeko,
bertarik nola, samur-samurra,
belar hori zimur-zimurra,

utzi zitzadan manuz baitzauzat,
exekiterago ez niz auzat.

Gauaz, epaizkaz, zure etxean sartuz,
eme ibiliz, eme hatsartuz,
eta hastatzez, ganbara-bilan
iraganik, beldur handitan,
net hat sharturik, zure ohe ondora
ba'natorra, ni hautsemanik;
eta ordu hartan, gaixoa nik,
leihoti jausiz, ohoin-iduri,
hil-penan behar dut itzuri.

Noiz ere bai-naiz hauzaz orhitzen,
zin-zinez ba-niz hil-nahitzen;
hiltzea gaitz da, gaitzago bana
maite uken, eta ez maite izana.
Harren gaurgoitik zerbait hongoaz
urgaz nezazu jaungoikoaz;
ezi ez da deuskai edertasuna
lagun ez ba'du hontartasuna;
aintziti, ederrik gaitz dena, duzu
berhala, edo sagarra harzu,
haur ederra buru zakarzu,
edo anderauren begitartea
pikot orbainez net betea.
Beraz, zirentzat xahu estakuruz
hel zazkio, sobera aiduruz,
zugatik hiltzen ari denari
eta hura, otoi, urrikari;
ezpere, hura hilen da, eta zu
hartzaz huts zirate hospazu,

gizon bat galdu dukezulakotz.
Zergatik? maite zintielakotz.

## 6.-) Maitaro - Pedro María Otaño ((1857-1910)
**(On Migel Oñateren musikan)**

Agertzen zarenean
goizean goizetik,
illeak apainduaz,
zere gelatxotik,
atarira begira,
leiotxoan txutik,
eguzkiak agurtzen zaitu
mendiyaren atzetik.
Txori txiki politak,
arboletan iyuak,
bidaltzen dizkitzute
pipirripiyuak.
Azkenik, denak joanik,
eziñ utzi
leku au nik.
Izan zaite nitzaz
erruki.
Beti, beti...
Zenbat gau eta egun
pentsatutzen zugan !...
Biotza
erretzen
dadukat
nik suban...
Nire biotz gaxua
puska bat zugana
dijoa, maite laztana.
Esan zaidazu itz alaiez:

Baiez, baietz...
Alkarri egiñikan
anparo,
biziko gera biyok
luzaro
maitaro.

# PALABRA E INSULTO

## -1-

### ODA A ***, ALIAS "EL GAITERO ARMONIOSO"[2]

A ***, el que la marea armoniosamente en gallego.
Por lo visto, ha abandonado la gaita y se ha comprado una armónica, el verdugo octogenario.
Como ya no le circula la sangre por su arrinconado cerebro
(porque la derramó demasiado en su pasado franquista)
ahora le ha dado por tocar la armónica en gallego.
Lástima que el aPuleyo poPular no le saque un par de sones
ni por esperpéntica casualidad (¡armoniosa rima metrical!).
Tal vez la haga sonar con los labios de su tragaluz trasero,

---

[2] En declaraciones hechas a medios de comunicación de Spanishlandia, el bueno de *** ha venido a decir que el gallego es una lengua armoniosa y dulce (como la sidra el Gaitero, tal vez), mientras que el vasco es una lengua bárbara y primitiva que carece de armonía y futuro. Inspirados en tales disparates, y deseosos de dar una respuesta a este Pigmeo de la clase política más apestosa de ayer y de hoy, les presentamos esta graciosa "Oda a ***", y no nos resta sino agradecer al Gaitero Armonioso la oportunidad que nos ha brindado de pasar un buen rato a costa suya.

el muy monumental
(tantos años pensando en *verde*,
ya se sabe…).
El lumbreras de oro nos ha salido un cuatralbo de buen gusto (al menos,
en cuanto a tocar la armónica se refiere),
porque para eso es un monosabio híbrido y palurdo.
Y es que el Señor Don *** tiene una cara del calibre 2001;
y un oído tan fino para la música… (con esas orejas no hay quien pueda)
¡***, pero qué armonía cuando se expresa en Gallego!
Se le olvidó decirle a Patxi:
*"Oye, pero qué bien hablamos en gallego!*
*Qué envidia les daríamos a los vascos si supieran lo requetebién que hablamos en gallego. Apuesto mi divina inteligencia y mi sutil sentido de la armonía —fruto de largos años dedicado al estudio de la lengua eúscara— a que un vasco jamás hablará en gallego tan bien como lo hablamos nosotros, los gallegos".*
Estamos cansados de la impunidad con la que actúan estos espectros de la gloria nacional *spanisch*; cansados de que nos dejen la calle hecha una guarrada porque continuamente se les escapa la orina, la vergüenza y la hiel.
***, el Quebrantahuesos del Parque Nacional.
***, el misógino-humanófobo y vascófobo.
No soporta a los vascos porque dejó en Euskadi un rastro de asesinatos, tropelías e infamia, hechos todos que sus hilarantes rebuznos armoniosos no

podrán ocultar ni aún pasados dos mil años (*muchos más*, que reza la milonga), no mientras exista un vasco (un "eúscaro", dicho en su lenguaje de rapiña y mercenario) con capacidad de memoria. Por eso el Señor *** y sus corre-Legionarios odian a los vascos. Saben que mientras quede en pie un solo euskaldun habrá una conciencia que guardará el recuerdo de sus crímenes, de su petrolífero pensamiento, de su cobardía naranja, de los cuatricochientos golpes de estado en doscientos años con un total indefendible de muertos, de fusilamientos, de torturados, de desaparecidos… (he ahí la otra historia de España, omitida por los *ilustres* de La Real Academia de la Historia, cuyos miembros se han distinguido siempre por su bigotito bien rasuradito —¡ay, qué poco se quejaron de la historia de la Spain de Frank-stein! ¡qué bien se enseñaba entonces la gloriosa historia nacional!).
Y además, saben contar que es una maravilla. ¡No se les escapa ni un deceso! Ni uno solo. Incluso al capitán Astid le impondrían la medalla al honor, si pudieran (y en eso trajinan).
Ellos, que en apenas dos horas sembraron en Gernika 2.000 muertos civiles;
ellos, que entraron a saco en "San Sebastián",
y en unos días
dejaron un rastro de decenas de asesinados,
fusilados por la vía de apremio (¡qué armonía!),
arrasados, masacrados…

Ellos, que en una Nafarroa ajena al levantamiento asesinaron por la brava a miles de hombres y mujeres desarmados (como siempre),
unos porque eran vascos,
otros… ¡porque no hablaban el gallego con la armonía del Sr. Capuleto!
Ah, y hablando de todo un poco,
¡con qué armonía dirige el cotarro el señor Don ***iño!,
el Cruzado a quien parece se le haya agarrotado un cromosoma maligno en su camino:
primero la limpieza étnica del territorio,
y luego, al cabo de cuarenta años,
se da por finiquita la "fatal dictadura"
y se instaura una democracia con los supervivientes,
(pocos)
y con los soldados y sus familiares y sus allegados (bastante numerosos).
¡Ah, qué demócrata de pro!
¡Qué armonía!
Que bien pronuncia el gallego!
Por cierto, castigo de la inteligencia armónica,
¿el programa de Windows, su última versión,
lo utilizas en gallego? Nosotros, sí;
desde hace tiempo.
¿Y sabes porqué?
Porque tenemos una Facultad de Informática que imparte,
íntegramente,
desde el primer curso hasta el último,
todas sus asignaturas en euskara. Por eso,

inmortal Pedrín de ministerios; sólo por eso.
O porque las carreras de Química y Física las impartimos
en euskara, es decir, "en vasco" (para que te enteres, Momia).
Mucha armonía se colige, sí, de tu rancio razonamiento
y de tu vascofobia difícilmente ocultable;
y ahora que alguien ha destapado la caja de Pandora,
no has perdido un segundo en enseñarnos con cuánta armonía aligeras la vejiga… de tus iniquidades.
¡No, si le van a llamar de la radio televisión española, para que
participe de la Orquesta Nacional! (les hace falta un tragaluz que ventee armoniosamente la gaita, o la filarmónica, o las castañuelas…).
En fin,
estamos hartos de los fantoches odontológicos, señorito ***.
Hartos de ver a políticos que han arrendado su sentir canalla, incívico y torturante
a los bajos fondos de España.
Hartos de escuchar su lenguaje soez elevado a la categoría de programa político.
Vuecencia, ¿por qué no se busca un/a psiquiatra para que le cure de su *esquifrancozenia* compulsiva y aguda?
Se acabó dar respuesta en euskara a las incongruencias de esta caterva de
cacarrupias carbonizadas.

Los que hablamos en euskara
ya sabemos quiénes somos
y quién eres
y quiénes sois.
No nos hace falta malgastar nuestro oxígeno
y nuestro arroz conversando acerca del carcamal de turno
y de su congestionado minicerebro de palurdo, eso sí, muy armonioso.
Vamos a responderos en castellano,
porque nos sobra idioma,
y razones,
y cultura,
y bilingüismo,
y coraje,
y lo que un pueblo que se precie de serlo tiene que tener.
¿Han oído, bárbaros de pacotilla?
Sabemos quién es vuestro padrino,
mafiosillos,
y cuál vuestro pandemónium.
Nos han tocado los cojoncillos.
Y ahora, les vamos a enseñar que
aquí,
un burro es un burro,
por muy armoniosa que sea su libido lingüística
y sus cerdosos devaneos
con la cultura vasca.
¿insultos en castellano?
¿ofensas en castellano?
OK, insultaremos en la lengua de Cervantes

(a quien probablemente conocemos bastante mejor
que el Muchach[iñ]o en cuestión)
y ofenderemos en el idioma de guerra del Tuyo
Cid.
Pero eso sí: en nuestra universidad, en nuestros
hogares, en nuestras calles y plazas y editoriales y
en nuestros autobuses y tiendas y librerías y
bibliotecas y casas de cultura e ikastolas
continuaremos expresándonos en nuestro idioma de
todos los días,
mal que os pese, fardularios
(ya les gustaría a ellos poder inventarse una palabra
que pinche).
Van a ver estos fantoches,
estos esquizofrénicos pintamonas,
van a ver cómo el bilingüismo es una realidad.
Nunca tuvieron fuste humano;
y gobernaron su pueblo, y los que no eran suyos,
con su espíritu ralo y raquítico.
Sí, continuad condecorando a la barbarie.
Mientras, nosotros seguiremos levantando nuestra
casa.
Y pondremos al servicio de Euskal Herria
nuestros pensamientos (en euskara, en castellano,
en francés, en inglés…),
nuestro definitivo corazón (el vuestro siempre
estuvo emponzoñado) y nuestro sentir
(contrapuesto *ad aeternum* a vuestra ideología de
bizcocho).
No nos hacen falta pistolas ni goma2 para plantaros
cara.
No las queremos siquiera. Nos sobran palabras,

y pensamiento y ganas de seguir siendo lo que somos.
Las pistolas y las ametralladoras y los tanques y los cazabombarderos y los acorazados,
para vosotros. No los tuvimos nunca; no los necesitamos
para venceros.
Somos mejores. No porque seamos más ni porque seamos menos
(la ética no es una cuestión cuantitativa, Sancho Panza),
sino porque estamos en nuestra casa,
y no en la vuestra;
y porque la razón
y el sentir de las personas de bien
me acompaña cada vez que abro la puerta de mi casa.
Y porque no tenemos sobre nuestra conciencia masacres colectivas ni deshonras genocidas humanas.
No todos pueden decir lo mismo, ¿verdad, Sr. Armonías?
Y ahora que estamos más desahogados,
ponte cómodo, Boquimuelle.
Porque ahora empieza lo bueno.[3]

---

[3] Querido lector, si tienes medios de hacer llegar este escrito a Galicia, o a cualquier otro lugar en que se parle castellano, gallego o catalán, no te prives. Nos hacemos cargo de que los vascos no somos los únicos que tenemos derecho a partirnos el culo de risa gracias a las bondades intelectuales del Cardenal ***lieux y de su verborrea de patufo (por algo las primeras vacas locas aparecieron en el Norte Peninsular, por

## -2-
## PALABRAS PARA ***, ALIAS "EL ATORRANTE ANÓNIMO"

El 29 de junio de este año 2001, he aquí que tuve a bien recibir el primer anónimo de mi vida. Lo recibí vía correo electrónico. Y amén de algunos insultos y ofensas que mejor no transcribo, recibí incluso un archivo adjunto con un programa-virus adherido al anónimo en cuestión, virus que no llegó a cumplir su objetivo merced a las bondades del oso Panda (causa, supongo, de honda tristeza para el Oso Yogui —y me refiero, cómo no, al "ilustre" astoprotillo autor del susodicho anónimo—, el cual de aquí en adelante habrá de recibir mil calificativos a cada cual más hilarante y distintivo, entre los cuales cabría resaltar el de "***-Atorrante", porque sin duda es preciso reconocer que el muchacho se aviene a las intenciones de la lindeza lingüística apañada en su ser más que "atorrante" y chupacabras, que más o menos, es lo que ha venido a demostrarnos que es). ¿Quién se esconde bajo el nombre "***"? Ni idea. ¿Es realmente su nombre, o tal vez, lo ha utilizado como pseudónimo? Ni puñetera idea, amigos/as. Lo único que sé es que el mensaje tenía como origen una dirección, más o menos, como ésta: aeiou@ibercom.es. Y en la ventana de mensajes se

---

algo…). Mila esker, mil gracias, thank you very mach, mille mercis, grazie tante…!

podía leer: DE: *** ("Atorrante", se le olvidó añadir al mequetrefe chupamocos…) PARA: Un Servidor de Vds. Cachis… No sabe ni su nombre, el fardulario de cuatro ochavos. Pero no importa. Ya se lo vamos a enseñar. Por mi parte, no quiero alargar más esta "entradilla" de mi *magna* "Oda a ***[4]" (ya sabéis, la del "Atorrante"), si bien aún me gustaría hacer una última reflexión, y también, una humilde solicitud a EIE (Euskal Idazleen Elkartea), de quien tengo la alegría de ser miembro, respecto al siguiente asunto: a) En caso de llegar a saberse algún día quién es la persona autora del anónimo y del envío del programa-virus, y si ésta fuera socio de EIE, proceder inmediatamente a su expulsión, sea quien fuere, y sin contemplaciones; b) entablar los pasos judiciales necesarios con vistas a un proceso judicial cuya principal causa sería "intento de sabotaje informático", así como las consecuencias que puedan derivarse por el envío de anónimos a personas particulares. Eso en cuanto a la solicitud. Y por lo que se refiere a la reflexión, digamos que está ligada a los llamados "polemistas"; ya sabéis, esos patufos literarios sin mayores dotes para la literatura pero con mucho tiempo libre (siempre están en el paro) y que, en vista de las poquísimas cualidades de las que hacen gala a lo largo de su amodorrada trayectoria literaria, no se les ocurre mejor solución para ser "famosos" que la de imitar a las moscas, es decir, ir de mierda en mierda (o sea, de polémica en polémica). Así, generalmente, esta raza de

[4] Algún día, pronto, os daré noticia de la misma.

escritores cartujos y pancartas acaba, en la mejor de las suertes, "animando" las tertulias de alguna televisión pública, en las horas de mayor audiencia (ya sabéis, cuando en Korella se van a echar la siesta). Hay, sin embargo, algunos polemistas que han podido ser realmente "buenos", en el sentido de que ha sido gente con capacidad para escribir un libro, digamos, ameno. Pero la vida no siempre sonríe, ni aún menos premia, a quien se lo merece; y en tales casos, en lugar de encogerse de hombros y correr un tupido velo (aprovechando que la vida no es para siempre), toman el mal camino, es decir, el camino de la polémica, cosa que les lleva a vender su bagaje literario y cultural (en ocasiones estimable) al primer periódico de tirada franconacional, es decir, acaban de policías (pseudo)literarios, escupiendo lo que más conviene a la editorial a cambio de un puto sueldo; y tan llenos de rabia por dentro (cuanto más te matas más te quieres matar) que para cuando, el bolsillo con algunos billetes abultado, tratan de regresar a Peter Panlandia, ya es demasiado tarde: no pueden escribir ni un humilde cuento (quien pierde el corazón en el camino… ya se sabe), la poesía les parece ridícula, y la gastronomía comienza a adquirir cada vez más importancia en sus derretidas vidas siempre al servicio de una ideología política consolidada en el poder (o pseudo poder) dominante de turno (entendido éste en su vertiente más burócrata e insípida, aunque con su habitual caudal de hipocresía y cinismo). Porque hay algo de lo que no me cabe duda: quien ha escrito el

anónimo es un escritor euskaldun, exactamente igual que lo soy yo. Lo sé y punto. Es lo único que el mensaje anónimo no me ha ocultado. Su estúpido e incomprensible rencor, su rabia almidonada y sus cacareos de escritor menopáusico delatan al mediocre que ha llegado demasiado lejos en su vulgaridad y no acierta a salir de ese atolladero. Al parecer, no está de acuerdo con mi euskara[5]. Así, que estas líneas te las envío en castellano[6] (como al protagonista de la "oda" anterior). Según parece, algunos no tenemos derecho a escribir en euskara; dañamos tus delicados oídos (como están dentro de unas orejas de burro tan grandes…). Hablamos en euskara con nuestros hijos e hijas, pensamos en nuestra intimidad en esta lengua, muchos llevamos trabajando 20 o 25 años en la cultura vasca… Nada; somos mierda para este hijo-putilla (cuyo euskara, por cierto, parecía que lo había adquirido en los saldos del Corte Inglés…). Está tan encumbrado en su excelso cenicero lingüístico… Si Aresti volviera a vivir, volvería a insultarlo, a difamarlo, a lapidarlo. Y luego, al cabo de unos años, lo cubriría de elogios (no hay que hacer nada que no esté bien visto por *la banda*, ¿eh, cerillero?) Hay algo, sin embargo, que no puedo entender: si un escritor no es de tu gusto, ¿para qué te detienes

---

[5] Siempre habrá un pollino a quien se le haga la picha un lío con la "a" orgánica y el numeral "bat".

[6] Ya las pondré en euskara cuando me venga bien. Para que aquellos euskaldunes, con un noble sentido de la existencia, tengan la oportunidad de reírse de ti también en euskara.

en él? ¿por qué malgastas tu tiempo en difamarlo, anónimamente[7], en vez de emplearlo en aquellos autores que realmente te proporcionan aquello que esperas? Probablemente este "saltabanco[8]" no tenga una respuesta para tan poca pregunta. Sí, la verdad es que ya va siendo hora de "salir del armario" y plantar cara a estos mequetrefes que han pretendido subirse al carro de la literatura vasca sin haber comprendido todavía la belleza que un Maupassant, un Hoffmann o un Stevenson derrochan en euskara. En cualquier caso, si tengo que medirme con quien no está dispuesto a admitir la Euskal Herria en la que yo creo, y por la que hace veinte largos años lucho[9], en ese caso, si tengo que valerme de cualesquiera otros idiomas que con tanto amor e inconsciencia natural me fueron transmitidos[10], ten por seguro que así habré de hacerlo[11], sobre todo, con quienes no están dispuestos a utilizar el euskara para gozar, sino para pisotear... anónimamente. Son, desde luego, los menos; y los peores… (sólo me he topado con uno en toda mi vida: contigo). Agur, mandinga. Y gracias por el anónimo (precisamente, no sabía acerca de qué coño escribir, y mira por dónde has aparecido tú a darme un poco de aire y de pasión). Te digo lo que tú ya sabes, oligarquísimo superescritor-descendiente-

[7] Como los torturadores

[8] Saltimbanqui

[9] Cada uno tiene su trinchera

[10] Porque, gilipollas, todos tenemos un idioma materno.

[11] Si vas a llorar date un mordisco en las pelotas, cocodrilo, y así tendrás una buena razón para ello.

directo-del-mismísimo-Axular: cuando entres en un bar y veas que un grupo te mira y se echa a reír, sabrás que tú eres el motivo de tanta alegría y bienestar. Y que, en gran medida, eso me lo debes a mí[12] (si tuvieras en euskara la mitad de la gracia y malicia que yo, en estas líneas, acabo de mostrarte…[13]).

## -3-
### A ***, ALIAS "CARA-CULO-DE-MANDRIL"[14]

Este envoltorio de basura-carne
(y poco cerebro) llamado ***
(con "M" de mierda). Se cree
gracioso, el muy majadero,
aunque sus efectos en la audiencia
son tan peligrosos o más que
los del Opio. *** es más
labriego que Heydi, y su
porcentaje intelectual hace cundir
la hilaridad entre los más
ingenuos del grupo de los gorilas.
Él es ***, la estrella de la tele,

---

[12] Sí, haces bien en guardarte la identidad, pedofílico de mierda.

[13] Líneas que, por cierto, van firmadas con un nombre y dos apellidos. ¿Capiscas, timorato?

[14] Aclaremos una cosa: nunca hasta ahora he insultado a nadie que previamente no me haya insultado primero. Aborrezco el espíritu del "poteador" fanfarrón y engreído, y procuro dar la respuesta adecuada a su caso. Eso es todo.

más pesado que unas ladillas
y más soporífero, chabacano
y pueril que "Operación Triunfo".
Para inspirarse, antes de
cada programa (y ya van demasiados)
se relame el culo con la lengua
(porque la tiene bien larga).
*** se creía a salvo
de la pluviometría, sólo porque
tenía un espíritu plegable
(amén de cara de gilipollas).
Anda, báilame uno de tus aurreskus,
y cuando levantes la pata,
échate un pixa pa' marcar
el territorio, especie de almeja cutre
e hiper perfumada. ***, margarita
de la TeVi Oan, ¿sabías que, a veces, pa' dar
dos hostias, primero se reciben diez?;
¿o al revés? Así es la vida (la vida
de las putas). ***, eres guapo
como culo de mandril, y tienes un
tipazo tan orondo y chaparro,
que todo el mundo dice: "Joder, es el
primer filipino que veo embarazado".
Pero es la mierda, que ya no le sale
por el culo. Aunque por la boca
aligera bastante. ***, con "M" de
mierda, hace unos chistes tan malos
y hemorrágicos, que hasta los enterradores
se quejan, de que les quita el trabajo
(intrusismo laboral). Oi, ***, ***:
si te ordeñaras el cerebro de vez en cuando,

y dejaras no sólo de rebuznar sino también
de especular, veces habría en que incluso
parecerías persona (a pesar de tu cara de
culo de mandril). ¿Qué tal? ¿te gustan mis
galletas? ¡Cuidado, *** va a abrir la
boca y estamos faltos de papel higiénico!
¡Niñas, niños, cuidado con los pederastas,
hoy viene *** de paseo por el pueblo!
Oi, pero que pachuco
es ***, parece mentira que
esté subvencionado (estos lameculos
siempre se las arreglan pa' vivir sin
dar golpe). Lo peor son sus chistes
(tienen que intercalar anuncios de
dentífricos cada vez que cuenta
uno). ***, la legión te llama
(y de paso, te vas a tomar por el culo).
Muy bien, papagayo palurdo,
me lo estoy pasando bien contigo.
¿En vez de joder al personal con tu
mediocridad, no sería mejor si te
autopracticaras la disección? Nunca
es tarde, para estudiar medicina.
¿Qué, notas el pastel en el culo?
Si quieres, te lo firmo. ¿No? ¿No quieres?
Valdría una fortuna, de aquí a trescientos
años (es la misma sensación
que producen tus programas).
Y hablando de programas, hay uno
para Idiotas, y además dan Diploma.
Seguro que te interesa. A ti, incluso,
igual te dejan impartirlo. ¿Estás ahí, ***…?

Me ha parecido escuchar un aullido. ¿Has
sido tú? Ten cuidado, no te vayas a
pillar los huevos con la puerta del
garaje, te cuelgan tanto… Claro que
tú, bien coqueto eres (es una cualidad
innata a todos los cara-culo-de-mandril).
En fin, minifacélico, cómprate
una regadera y cuídate de regar tu
cerebro y estatura un par de veces
por semana, al menos.
Y si quieres negociar,
ya sabes donde vive mi Pit-bull
(es tan gracioso como tú; la única
manía que tiene es que le gusta
demasiado roer huesos —como a ti—).
Y por mi parte,
creo que esto es todo
cuanto deseaba comunicarte
en la humilde lengua
de Cervantes.
Te lo diría en bilingüe,
pero últimamente
me echan muy en cara
no ser de Azpeitia.
Y además, yo me ando bastante severo
con cuantos nunca aprendieron
a decir "gracias"
a los buenos euskaldunberris.
Y ahora, patológico humorista
engolado, vete a zamparte
tu gazpacho, y ya de paso,
te quitas los piojos, y las bragas,

te haces un nudo marinero en la lengua
y pruebas a labrarte un brillante futuro en
la Academia (donde los cara-culo de mandril
[tienen preferencia],
y puerta.

## 5 POEMA ZENBAKIDUN

**-1-**

Jainkoa inoiz agertu bazen,
atzerapenez helduko zen
infernu hartara.
Eguzkia bera ere joana zen,
hainbesteko horrorea ez ikustearren.
Igaro ziren urteak,
lorerik ernatu gabe.
Ilargiaren dardara
ezkutuka zebilen etxez etxe.
Ustekabean, ate batean irri batek
agurtu ninduen soslaiez
eta itsasoak dunak zeharkatu zituen.
“Esaidazue”, oihukatu nuen,
“esaidazue ez zaudetela hilda”, amorruz.
Etxe biluziek erantzun zidaten;
euren leiho hilak jaurki zizkidaten
aurpegira.
Orduan... txio bat han...
bor-bor batzuk hemen...
abuztuko arratsaldeak sentitu nituen
poliki-poliki nire larru-azala
berotzen, laztantzen.
Eta haur bat ikusi nuen kale nagusian,
jolasten.
Eta oroitzapenak urraturik,
bakearen eta justiziaren ildoak
antzeman nituen lurrean zehar
zabaltzen eta zabaltzen

lehiarik gabe, mugarik gabe
–lorerik umilena zabaltzen den
duintasun horrekin, misterio horretxekin–.
Holaxe salbatu nintzen
nire malkoetan itota hiltzetik.
Oi, Gernika! Urrikal zaitez gutaz![15]

**-2-**

Ba ote dago lekurik
oroitzapenik gabeko egunentzat?
Urteak igaro dira
odol arrasto bat utziz.
Eta denbora guztietan
ikusi ditut zauriak
eta odoluste ikaragarriak:
Gernika, Janin, Dubrovnik, Bagdad, Grozni...
Ezer gutxi ikasten dugu,
ilea urdinduta ere. Baina, zerbait
eskatu nahi nizun, nolanahi ere.
Hildako nekatu horiei
ohore egin diezazula
bizirik daudenei eztitasuna
erakutsiz. Bada garaia
historiaren uhalei heltzeko
eta militarrez jantzita
zelatatzen gaituen heriotza bortitzari
oihukatzeko: “Zureak egin du!”
Izarren lurrina hedatzen da
mendi lokartuetan zehar
eta gure ahotsak nahasian dabiltza

---

[15] “Gernikako Poema Bonbardaketa” ekimenerako idatzitako poema

gaua argitzen diguten hildakoen
oihuen artean. Gauaren korapilo
askagaitza patu saihestezina
dugu, zeinaren aurka
oldarrez isurtzen baitira eguzki-printzak![16]

**-3-**

Noizean behin
bizitzak
halako arnasaldi batzuk
ematen dizkigu
eta horrek esan nahi du
zerbait egozten ari dela.

**-4-**

Aterpera!!!
Oxtia txaparrada dator, lagunok!!!

**-5-**

*Abisua ematen duena*
*ez da traidorea*

–esan zuen Judasek–

*Zitala izango da gehienera ere*
*baina traidorea*
*inolaz ere ez.*

---

[16] "Gernikako Poema Bonbardaketa" ekimenerako idatzitako poema

## AUTOKARABANAK IN THE NIGHT
## (Ipuina)

Badira zinez zoriontsuak garen uneak –bakearen alde onak, dudarik gabe…–. Horrelako uneetan hobe galderarik ez egitea. Zoriontsuak gara, eta kitto. Kausak eta arrazoiak bilatzen hasiz gero, akabo zoriona. Kontuz gero, beraz, denok barruan daramagun filosofoarekin.

–Aizan, Itziar. Behatzetako askazalak margotzeko ezingo huke itxaron abagune hobea izan arte? Tapizeria izorratuko dun. Eta autokarabana erosi berria dun. Bigarren eskukoa izan arren, nahiko txukuna zegon.

Une zoriontsuak identifikatzea ez da bat ere zaila: oroitzapenik bat ere uzten ez dutenak. Zeren, zoritxarreko uneak, horiek, sekula santan ez zaizkigu burutik joaten. Sudur-oker, begi-bakar edo hanka-motz izatea bezalakoa da: nahi ukan, inork ez; baina baldin bazara… Izan ere, munduan bi loteria-mota daude: zoritxarra banatzen duena eta zoriona banatzen duena. Duten antza? Bada hori, biak loteriak izatea. Aukeratu ez baizik-eta tokatu egiten dira. *Libre albedrio* delakoak hor ez du zer eginik. Guk asmatu dugun loteria, ordea, patuak guretzat asmatu duenaren isla baino ez da. Jainkoaren beste aurpegia, akaso.

–Lasai, Erramuntxo maitea. Ikusten? Dagoeneko bukatu diat *ma toilette*. Orain, nire behatz polit hauek guantera gainean jarriko dizkiat lehortzen. Antiestetikoa iruditzen ez bazaik, behintzat.

Zoriona antzemateko zantzuak ere badira. Esaterako, eguraldi txarra egin arren, egun horretako edertasuna ulertzeko –antzemateko– gauza bazara, seinale on. Bikotekidearen sentsualtasuna sentitzea ere beste “pista” on bat da, batez ere aspaldiko bikotekidea bada. Jendearekin, oro har, atsegin jokatzea berez ateratzen bazaizu, hori ere zure zorionaren salatari izango da. Baina, kontuz, zoriontsua zarela jendeak jakitea nahi ez baduzu, orduan joka ezazu zakar mundu guztiarekin. Badu alde txar bat, ordea: ohitzeko arriskua dagoela.

–Ai, Itziartxo. Hire behatzak bai polittak, horrela margotuak, kolore xikodeliko horrekin… Oraintxe bertan autokarabana bide-bazterrean gelditu eta jolas bat erakutsiko ninake…

Baina, zer dela-eta uste dugu jakiteak zoritxarreko bilakatzen gaituela? Ez al genuen ikasi nahi izan, ez-jakiteak zoritxarreko egiten gintuelako? Garen kontraesana berresteko jaioak garela ematen du. Sortzaileari paradoxa bat galdu zitzaion: gu. Planeta urdinaren inmentsitate erlatiboaren erdian, gizakia galdezka. Beti galdezka.

–Ahaztu, Erramun. Kondoirik gabe gaudek eta oraingoz nahiago diat gure familia ez handitzea. Bai, bazekiat lau pertsonarentzako karabana dela. Dena den, non sartuko huke erosi nahi duan pianoa, ume bat ekarriko bagenu? Eta bizkiak balira? Edo gehiago? Gainera, erditu ondoren badakik emakumeoi zer gertatzen zaigun: panderua handitzen zaigula. Hemen, handituko ez litzatekeen bakarra gure autokarabana izango lukek.

Egia esan, zorionak kakazten gaitu, burgestuta sentiarazten gaitu –asperduraren hatzaparkada, inondik ere–. Hara, zenbat aspertu behar dugun, munduko gizakirik zoriontsuenak sentitzeko! Azken batean, asperdura-kontua da. Zenbat eta gehiago aspertu, orduan eta zoriontsuagoak. Zoriontsu bizi garenean, paper higienikoa tonaka behar dugu. Baina “kaka” hor dago beti, gure aurrean, oparitako paper polit batean bilduta edo bildu gabe (*al natural*). Gerrak, sarraskiak, indarkeriazko ekintzak… Guztiori behar-beharrezkoa da zoriontsuak izateari uzteko. Eta orduan, bai: gure baitan pizten den zorion-egarria aseezina, jaurkiezina da. Txoratuko gara zorionaren bila. Den-dena hasiko da berriro. Sisifo lantegiko kate mekanikora itzuliko da, asteburuetan izan ezik (orduan tabernara joango baita, mozkortzera).

–Bada hik nahi dunana esango dun, baina karabana honetan etxe batean bezain ongi bizi

daiteken. Irudimen-kontua dun. Bizitza maitatzen badun, hiriko untxitegi horietako batean baino hobeto bizi gaitezken hemen. Eta banketxe-puta horiekin zorretan bukatu gabe. Utzien zergadun zintzoei euren bizitzekin espekulatzen. Eta pianoari dagokionez, ba piano bertikal bat, tamaina txikikoa, nik uste… Benetan, ez egin barre.

“Oker geunden”, “nik uste nuen beste modu batez izango zela”, “gazteak ginen”… Gure buruarekin gustura ez egoteko, hamaika arrazoi topatuko ditugu, batzuk arruntak, beste batzuk nobedoso samarrak… Zoriontsuak luzaro izateko gure ezintasunaren justifikazioa, dudarik gabe. Bizitza leihotik botatzea erabakitzen dugunean, hortik aurrerako ekintza ergel bezain alferrikako guztiak zuritzen hasi behar dugu eta. “Xuriketa”, jaun-andreok. Sar eta ikus. Munduko farsanterik onenak ikusiko dituzue lanean! Txalo bat guretzat! Txalo bat beraientzat!

–Nork jakin, Erramuntxo… Baina gazteak gaituk. Erokeriak egiteko garaia duk hau. Izango diagu zentzudunak izateko astia, “zentzu-arora” iristean. Egia esan, horren txoroa izango ez bahintz, ez nindukean hirekin *enroilatuko* ezta mozkortuta ere. Gainera, badakik nire aitak zer dioen: “Exekutiborik onenak, hippy eroak gaztetan”. E, zer? Nire aitak gaztetan porru gehiegi erre zituela? Kar, kar, kar.

Bada bai. Zoriona eskuetan dugunean, erre egiten gaitu. Beitu poker jokoarekin ere zer gertatzen zaigun. Pokerrak erakartzen gaitu: den-dena daukagu eta den-dena gal dezakegu. Izan ere, subkontzienteak harrapatuta gauzka; kontzienteari ihes egitea erraza da ordea, hura erabat ergela izanik. Baina inkontzienteari ziria sartzea, joño… Hori beste upelako sagardoa da. Aholku bat: saihes itzazue hitzez hitzeko interpretazioak, buruhausteak besterik ez dizkizuete emango eta.

–Hara, Itziartxo. Hau bai kasualitatea! Begira non suertatu garen: hondartza nudista batean! Eta kasualitateak ez ditun hor amaitzen. Oraintxe gogoratu zaidan bainujantzien poltsa Ane eta Markelen mobil-homean ahaztu zaizkigula. Bada kriston pena eta tristura ematen zidan hau esateak, baina bainua hartu nahi badugu, gu ere nudista-budista-leninista egin beharko gaitun. Xe pena, e printxexa? A, berariaz, atzo kondoi-kaxa kendu nionan Markeli. Ez dinat uste ohartuko denik –gero eta gutxixeago erabiltzen dituelakoan nagon–. Hortaz, hire bizitzako unerik goxoenak *esperimentatzeko* prest hago, laztana?

Zoriona ikaragarri irrikatu beharra dago, zorionik gabe ere zeinen zoriontsuak ginen ulertu ahal izateko. Ordurako, beranduegi izango bada ere… Bai? beranduegi? zergatik beranduegi…?

–Hik ez duk erremediorik, motel. Hirekin zentzu-arora iristeko, zahartzarora arte itxaron beharko diagu.

***

Ilunabarrean, argiak piztu dira autokarabanetan. Eta izadia beste lekukorik gabe, Erramun eta Itziarren hasperenak galdu dira olatuen urrumen artean. Berriro ere, zorionak ahantzirako bidea hartu du...

(2005eko abuztuan Berriak-en argitaratua)

## HIL ZORIAN NAGO, ETA ZER?
## (Ipuina)

Ni, behintzat bizi izan naiz. Denek ezin gauza bera esan… Baina zergatik pentsatu behar dut besteak baino hobea izan naizela, bizitze-kontuetan dela edota beste kontu batzuetan dela? Betiko harrokeria. Seinale txarra horretaz konturatzea! Harrokeriak biziarazten gaituela egia bada, ni orduan banoa, harrokeriaren mozorroa kenduta.

–Inori abisatzea nahi duzu? –erizainak, irribarre-oro.

–Ez, mila esker. Baina ez dut seniderik –begi galdurik edo, gaixoa.

–Lagunik ere ez…? –besteak, tematsu.

–Lagunik ere ez –gaixoak, erabakior.

Jar diezaiogun izen bat zoritxarrari. Esaterako, nire izena: Bizente (Bixen, lagunentzat). Zoritxarrari izena jartzen diogunean, lasaiago gelditzen gara. Zoritxarra uxatzeko ere ez da erremedio makala. Izenik ez daukanaren beldur bizi gara. Beldurra ematen digun "gauza hori" ez da guk sortua; "gauza hori" jarri diogun izena, ordea, bai, guk sortua da, eta horrek baketzen gaitu

baketu-behar gaituenarekin. Ez gara jainkoa, haren ordezkoa baizik. Une batez, sikiera.

–Pena ematen dit gizon horrek. Horrela hiltzea, hain bakarrik… –erizainak beste bati.

–Ez zaitez besteen penetan nahas, neska. Zure kalterako izango da eta.

Bizi izan naizela esan dezaket, bizi izan ez naizela esan nezakeen modu berean. Azken batean, bizitza “bluff” bat baino ez da. Ematen du zerbait gertatzen ari dela, edo zerbait gertatu dela, baina irudi-sekuentzia bat da buruak aurrean jartzen digun guztia. Sentsazioa, horra zer den bizitza! Hiltzen ari naizelako sentsazioa dut, bizi izan naizelako sentsazioa izan dudan bezalaxe. Bi mutur, kontinente berari lotuak. Bi engainu, sarrera eta irteera berbera dutenak. Hau tristura, gehiago bizi ez izana, aukera nuenean! Akaso sentsazio hori dute hiltzera zihoazen guztiek: tristura, are gehiago bizi ez izanagatik, horren parada izan zutenean.

–Zer egiten duzu hemen? Bihar arte ez zenuen etorri behar –lehengo erizainak lehengo erizainari.

–Ezin diot utzi gizon horretaz pentsatzeari… Sekula ez dut tamaina horretako bakardaderik ezagutu. Kaleko eskalea balitz bezala… Baina izan gabe… Gainera, harengan zerbait berezia dago. Ez dakit zer den.

Une bat iristen da non gogoa hondatzen zaigun gauza guztiekiko. Ezerk ez digu tiratzen. Bizitza honetan egin behar nuen matematika guztia eginda daukat. Zenbakirik ez zait koadratu eta aldi berean zenbaki guztiak koadratu zaizkit. “Koadro biribilak”. Kar, kar. Huskerietaz egiten dut barre. Ez dakit filosofia abandonatu dudan ala filosofiak ni abandonatu nauen. Sofisma merkea da, bai, baina hil zorian nago… Hiltzetik gertu egonda, zer egin beharko nuke? zer pentsamendu-klase izan beharko nituzke? bizitakoan bazter izan dudan jainkoarengana itzuli behar ote dut begirada, urriki eske edo…? O, zeinen zaila eta zeinen erraza den bat hiltzea. Zeinen erraza eta zeinen zaila… Dikotomia honek irensten nau, nire bizitzaren parte beti izan den dikotomia horretxek. Hona hemen, nire azkeneko pentsamenduak, nire azkeneko “jokaldiak”. Azken gola, eta kito. Betiko erretiroa da hau. Amaitu da Gizarte Segurantzari kuota gehiago ordaintzea. Izorra dadila! izorra daitezela denak, nire beharra zuten guztiak, nitaz zerbait espero izan zuten guztiak! Infernuan arduratuko dira nitaz. Agian, liburutegi batean jarriko naute, irakurtzen eta idazten eta hizkuntzak ikasten. Zigor handiagorik… Non jarri behar da sinadura?

–Sartuko naiz eta galdetuko diot ea zerbait nahi duen. Telebista piztu edo…

–Begira, neska. Nik lehen esan dizut. Ez nahastu gaixo horren bakardadean. Hemen kolore

guztietakoak ikustera ohituta gaude. Zu berria zara. Utzi ibaiari jaisten.

Behintzat, gelan bakarrik utzi naute. Eskerrak, "kotileoak" egun-puta guztia ikusten pasatzen zuen emakume-alu hura eta bere senar izorrantea… Telebista piztuta egoteak azal hutsezko bihurtzen zuen nire heriotza. Horraino heldu gara: norbait dugu ondoan hil-zorian, eta belauniko jarri beharrean, telebista pizten dugu, ezer gertatuko ez balitz bezala. Ondoan hiltzen zaiguna ikusteko gai izan ez eta munduko "dezesoak" ikusteko gauza ote? Bai eta zera ere. Ez, mesedez. Ez piztu telebista. Utzidazue nire heriotzaz ohartzen, hausnartzen –eta zergatik ez?–, gozatzen.

–Kaixo, Bizente. Haizpea naiz, lehengo erizaina. Ondo al zaude? zerbait behar al duzu? Nahi baduzu, telebista piztuko dut.

–Zu Herio ote zara? Telebistarekin hilko nauzu orduan… Segarik ez darabilzu gehiago…? Hamaikatxo ikusteko jaioak gara, bai horixe.

Ontasun-piska batek ez dit txarrik egingo. Bizia badoakidala sentitzen dut. Mentol karamelua bezalakoa da, fuertia, birikak barrutik osorik harrapatzen dizkidan sentsazioa. Azken batean, beste sentsazio bat. Horra zer den hiltzea, heriotza dohatsua: sentsazio zirtzil eta purtzila. Zerbait zegoela sinetsita nengoen. Baina orain badakit

gehienera ere zer egongo den: sentsazio bat. Nonbait, lekuren batean, sentsazio bat (zapore bat…?). Baina izango al naiz sentsazio hori antzemateko gai? neronen kontzientziaz eta neronetaz ohartzeko bezain indartsua izango ote da sentsazio hori? ala itzaltzen joango da/naiz, higikorraren seinalea galtzen den bezala, erabat amatatu arte, “koberturarik” gabe gelditu arte?

–Ez dizu inporta eskutik heltzen badizut…? erizainak.

Buruaz ezetz erantzun diodala uste dut. Egoera patetikoa da. Barre egiteko indarrik banu, barre egingo nuke. Ozta-ozta bereizten ditut nire hatzak eta harenak. Zer arraro, neskak hementxe izan behar du, baina urrun, oso urrun balego bezala ikusten dut. E, nora joan zara? Nork itzali du argia?... Nor dabil hor? Gelako komunean norbait edo… zerbait dago ezkutatuta. Denbora osoan egon da hor! Arren, piztu argia! Piztu!

***

–Baina, zergatik ez gaituzue abisatu? Ez genekien kalean ondoezik jarri zenik eta hona anbulantziaz ekarri zutenik. Nola, seniderik ez zuela esan zizuela? Baina nire senarra zen! Bi seme-alaba zituen. Eta iloba bat, eta adiskide jator bat edo beste... Ez dut ulertzen. Ez du zentzurik. Galduta bezala nago.

# Haur-ipuin batentzako zirriborroa

1.- Aitona, Ander eta Uxue. Autoz (aitona gidari)
2.- Tokiora heltzen dira; zoologiko batean sartzen dira.
3.- Leopardoa bere kaiolan.
4.- Leopardoak ihes egiten du.
5.- Auto barruan sartu eta eskapatu egiten dira, leopardoa atzetik dutela.
6.- Leopardoak harrapatu egiten ditu. Autoko kristalak puskatzen saiatzen da.
7.- Ander autotik atera eta korrika hasten da.
8.- Leopardoa segika duela, Amara Berrira iristea lortzen du, aitona-amonen etxera alegia.
9.- Ohe azpian ezkutatzen da.
10.- Leopardoa ez dago, alde egin du.
11.- Ander berriro itzultzen da aitona eta Uxue utzitako lekura. Aitona autoa garbitzen ari da. Uxue leopardoa ferekatzen eta haren ilea orrazten ari da.
12-. Leopardoa “maskota” bihurtu da.

## LIBURÚKI, PASIÓ BATEN HISTORÍA
## (nobela frakaso baten aurreneko 4 atalak)

### I

Kaixo. Nobela bat hiru liburúki (lodi)tan. Edo horren egilea. Auskalo. Itzuli naizela esan nahi dut. Ez dakit zergatik. Premiagatik ala bizioagatik. Putak horrelakoak gara. “Inkultak”. Eta “inprebisibleak”. Zer? Ez duzu hitza gogoko? Eta niri zer? Zer uste duzu, ordaindu egiten didatela hiztegian nire denbora baliotsua (urrea adinakoa!) alferrikatzen ibiltzeko? Begira ezazu zuk. Notejode. Insolente halakoa. Igual pentsatu duzu kristona dakizula. Eta dauzkazu asto-belarri luze horiek, zer? Eh? Ez ditudala ikusi pentsatu duzu akaso? Klaro, orain esango didazu nire nobelari titulua eta guzti jartzeko. Ezta? Eskatzen hasita... Nola ateratzen zaizun debalde... Gogoratzen al zara nitaz? Ba ni zutaz oroitzen naiz. Zu zara Madrilen lehengo urtean sekulako jipoia eman zidana. Baina ez dut tragiko jarri nahi. Realak irabaziko ahal du! Denok pozik eta zoriontsu. Ezker abertzalea legez kanpo (Gipuzkoako lehen indar politikoa!), Euskaldunon Egunkaria itxita, Estatu Batuetan pneumonia atipikorik ez... Baina gu, hala eta guztiz ere, pozik eta zoriontsu. Guk ez dugu hau asmatu, ezta? Betikoa. Makarra batzuk baino ez gara. Begira niri. Lehen, ehun orriko nobelak idazten nituen. Orain, hiru orriko nobelak idazten ditut. Ez

nekatzeko. Ez ni ez bezeroak. Zeren inportanteena horixe da. Ez nekatzea. Neka daitezela alpinistak. Nik uste dut ia alpinista gehienak karpanta hutsak direla, eta horregatik joaten direla akasadios. Han den-dena da debalde, baita hiletak ere. Walt Disney bezala, aizu. Minbizirik gabe baina. Tira, bide guztiak iristen dira Erromara. Galdetu Aita Santuari bestela; galdetu, bai, inkredulo horrek... 76. lerroan nago. Gutxiago falta zait hiru liburukiak bukatzeko. Liburúki bat Donostiako Ipuin Lehiaketara bidaliko dut (hogei urte daramatzate ipuin lehiaketari buruzko gutuna niri bidaltzen, behin ere huts egin gabe. Merezi dute...). Beste bat, Irungo lehiaketara. Eta hirugarrena, Cervantes lehiaketara (Gaztela-Mantxako gaztak dastatzeko kristoren gogua daukat, lagun). Txipiroiak ere oso onak dira, baina ez eskatu inoiz eguneko menu batean. Benetan. Ez galdetu zergatik. Chef-aren sekretua da hori. Eta orain, gaiez aldatuz (gaiez, ez gay-ez), zergatik ez didazu esaten noizbait zer-dela eta irakurri duzun Marjinalia Bilduma oso-osorik? Ez zenuen dirurik gastatu nahi ala? Joder, zer zuhurrrra! Ez, ez hartu gaizki. Hartu, eta kito. Grim Ferrer-rek laostia daki. Diglosiari buruz, besteak beste. Beti da atsegina jende azkarra ezagutzea. Inkontzienteki zenekiena kontzienteki esaten dizu halako jendeak. Hori da onena. Sekretu zaharrak berri. Tira, badirudi denborarik ez dela igaro; tira, badirudi denbora ez dela igaro (aukera ezazu gehien gustatzen zaizuna. Ah, eta ez ahaztu gaizki dagoena egileari -niri- aurpegiratzea). Gauza bakoitzari, bere izena. “Español”. Windos 98-k mezu horixe idatzita

dauka pantailaren behealdean.”Español(Es)”. Eta nola egin behar dut “EH” erakuts dezan? Beno, utz dezagun politika. Politika ongi dago genozidentzako. Jende zuhurrarentzako. Ni gaur lokalera jaitsi naiz. Ez dakit, asperturik egongo nintzen. Beti nago aspertuta. Asperdura nire bizimodua da gaur egun. Horraino iritsi gara... Ez, ez zaitut aspertu nahi. Alde egiteko garaiz zaude. Hortxe duzu atea, etengailua, botoia... Ireki, eman, sakatu besterik ez duzu egin behar, nitaz ahazteko, ni ezabatzeko. Maita nazazu, 3978. urtean. Ausartu egiten bazara. Iritziz aldatu ez bazara. Nitaz ahaztu ez bazara. Edo bestela, aurkez ezazu dimisioa. Onartu egingo dizugu eta. Ez arrazoi pertsonalengatik (zuk guri bost), baizik-eta egunerokeriari bizkar emateagatik. Hain gauza gutxi gertatzen dira... Ez dakit zenbat denbora daramadan jo eta ke tekleatzen... Baina oraindik oso urrun nago hiru liburukiak bukatzetik. Lehenbiziko orrian nago ia-ia. Agian, litekeena da honako hau hirugarren liburukia izatea. Eta beste biak idatzita egotea honez gero. Nork jakin. Agortzen hasia naiz. Nobela beltzera pasatuko banintz... Ez, ez. Hori konprometituegia da. Begira zer gertatu zitzaion Dashiell Hammett-i. Eta begira zer gertatu zitzaidan niri: haren nobela (Maltako Belatza) bi aldiz irakurri dudala, lehendik irakurrita neukala ahaztu zitzaidalako. Sentitzen dut, dezepzionatu bazaitut. Dena den, ondo zegoen. Ez zegoen gaizki. Ni ere nahiko ondo nengoen irakurri nuenean. Eta irakurri eta gero ere nahiko ondo jarraitzen nuen. Gaizki ez, behintzat. Normal.

Ongixe. Luzea zen eta gehiena letra txikiz idatzia. Baina ondo soportatu nuen. Txarrena da amaiera berriro ere gaizki ulertu nuela. Katxis, hirurehun orri eta koskaren ondoren.... Ez, ez. Txantxetan ari naiz. Beti gertatzen zait gauza bera, txintxeten gainean esertzen naizenean. Ja, ja, ja! Kristoren txistea, motel! Ja, ja, ja. Aspalditik ez nuen hainbeste barrerik egiten. Ja, ja, ja. Joder, zeinen dibertigarria naizen. Zuk ez al duzu uste oso-oso dibertigarria naizela? Ez...? Ba, jar zaitez ispiluaren aurrean eta hasi txisteak kontatzen, eta ikusiko duzu okerragorik badagoela mundu komiko honetan. Noski, zuk komikiak nahiago badituzu... Ba, orduan, isildu egingo naiz. (...). Ba al dakizu gauza bat? Aharrausika hasi naizela. Nigatik, zugatik, liburuki honengatik... Presionatuegi bizi naiz. Beharko nuke... askatasun handiagoa: soldataz arduratu beharrik ez... hiru orduko lanaldiak egunean... hiru hilabeteko oporrak ekitaldi bakoitzean... eta legegintzaldi guztiak ondo bukatu. Bai, jauna! Horixe behar da! U-mo-re-a! Eta gustatzen ez zaiguna amonari eman. Esaera zaharrak dioen bezala. Oso garbi zegoen. Begi-bistan genuen erantzuna. Baina ez genuen irtenbidea ikusten itsuak ginelako. Labirintoan ooooso gustura geundelako. Hor ez dago inongo erantzukizunik eta. Labirintoa da ahantzia. Da leku bat, inon ere ez dagoena. Da anti-askatasunaren aldarrikapena. Zertarako atera kanpora? Zertarako aurkitu bidea? Labirinto batek beste labirinto batera darama. Zuek zabortegi batean amaitu nahi duzue. Ba, orduan, tori zuen zabortegia. Mastekatu poliki-

poliki. Ez dago presarik. Jantzi ezazue danborreroaren paperezko txano zuria. Edan txanpaina. Jo ezazue Sarriegiren anti-martxa. Eta zabortegi guztia janda, ahituta, daukazuenean, orduan esan ozenki: We did it! Orduan esan ozenki: Gipuzkoako hiri hondakinen plan integrala da bidea! Notejode! Torkuato! Palurdete! Trikornudo! Zikinontzi! Sudormotz! Belarronkote! Ñaño-erdi! Erlojuari begiratzen diot eta konturatzen naiz nire obligazioen esklabua naizela. Askatasuna! Ja! Nik baino kate gehiago bere buruari jarri dionik...! Askatasuna aldarrikatzen dugu, baina gero eta kate gehiagok lotzen gaituzte. Gero eta labirinto korapilotsuagoak asmatzen ditugu, gure askatasuna hor preso geratuko dela ziurtatzeko. Ziklopeak gara. Maite dugu labirintoa. Hor haragia topatzen dugu doanik. Eta noizean behin, txalo bat edo beste. Ziklopeak gara. Labirintoa da gure etxea, gure aberria. Ez dakigu harantzago begiratzen. Gure begirada, latorrizkoa da. Gure begirada, txantxa bat da. Ez gara gu, gutaz daukagun iritzia baizik. Gutaz norbaitek sortu duen iritzia baizik ez gara. Orain, jar gaitezen transzendentalak. Pentsa dezagun heriotzari buruz eta guztiorretaz. Badakizue besteak beti hiltzen direla (zerbait egingo zuten!). Gu, ordea, ez gara inoiz hiltzen. Ez dakit noizbat esan dudan... Beharbada... Jarraitu beharko dut hurrengo egunen batean. Berandu da. Logure naiz. Garagardoa bukatu zait. Gastritisa ez zait bukatu. Kontuz beraz... Gaia ere agortu zaidala uste dut. Gaia. Gairik gabeko idazlea baino gauza patetikoagorik... alurik gabeko puta edo. Ikusten?

Ni beti itzultzen naiz putengana. Putanerra... beti putaner. “Ahuntza beti mendi alderantz”. Hori da hamaseigarren mandamendua. Zentsuratu zutena, ongi jaiotako neskak ez eskandalizatzeko. Puritanoak, azken batean. Euren morala euren betebeharrekin nahastu egin dutenak. Ez zaie asko inporta zuzena ote den... Da, eta kito. Eta ez bazaizu ongi iruditzen, hatzarekin seinalatuko zaituzte mundu guztiaren aurrean. Oso humanoa dena. Ez baikara txakurrak. Dena dela, diotenez, txakurrak oso nobleak dira... Koska egiten badute ere. Denek ez baina. Zenbaitzuek. Sena. Senez. Jitez. Instintuz. Jaiduraz. Oker batengatik. Une txar batean. Egiteak inporta zaizkigu ordea. Egiteak beti. Azalezkoena. Zenbat eta hutsalagoa, orduan eta gehiago betetzen gaitu. Bai, hartu arnasa sakona. Eh, begira tximeleta horri! Horko paretan mezu bat idazten ari da! “Larbak kanpora!”. Hori bai absurdua! Nora, nora iritsiko gara oraindik? Halakorik!

## II

Kaixo berriro. Badakizue filosofiarako nolako grina daukadan (“Trataktus Filosofikum Sakonis” deritzan lan garrantzitsua besterik ez baitago gogoratu behar). Pentsamendu unibertsalari egin diodan ekarpenari buruz pentsatzen hasten naizenean, benetan baina bertigoa eta guzti sentitzen dut. “Amilibis teutokratum” fenomenoa,

esaterako, txit zabalduta egon da garai guztietako filosofia guztietan. Horren barnean gailentzen den arazo filoteologikoa da hain txundigarria, non, inoiz ez zaidan ezertxo ere bururatu horri buruz, txunditzeko modukoa dena, ezta? Baina hori ere garbi ikus daiteke “datalaksia” deritzan beste fenomeno harrigarrian; hemen, ordea, bi “datalaksia” bereizi beharrean gaude, “ipar datalaksia” eta “hego datalaksia”. Bigarrenak hotzik uzten nauela aitoru behar dut; bigarrena, berriz, egokia da hondartzara eramateko. Poltsa baten barruan edo (flotagailuarekin, irrati aurikulardunarekin eta Liburúki honekin). Denetik aurki daiteke halako leku batean. Baina zuek hori baino gehiago nahi duzue. Zuek pasioa, grina da behar duzuena. Egun guztian lan aspergarrietan murgildurik bizi zaretenok zubi batetik egin behar duzue jauzi, orkatilatik soka batez lotuta. Egiten duzue suizidioaren antzespena, bizitzaz nazkatuta zaudelateko. Eta bizitzaz nazkatuta zaudete ez daukazuelako adorerik beste modu batez bizitzeko, arimatik lotuta zauzkaten sokekin apurtzeko bihotzik izan ez duzuelako. Horregatik, orain, gezur handi baten beharra daukazue, ispilu aurrean zuen aurpegiari begiratzen diozuenerako. Edota goizeko zortzietan nolabait arrazoitzeko zergatik hartu duzuen erabaki gorrotagarri hori: jaiki, jantzi, gosaldu, orraztu, hortzak garbitu, e.a. Tira, hau ez bada filosofia, orduan ostisofia izango da. Ostiak ematearen artea, hitzekin baina. Begira, gerra guztiak holaxe egin beharko lirateke. Hitzekin. Eta larrua ere holaxe, hitzekin (haragia ongi dago,

salerosketetarako). Bestalde, mundu honen barruan sartzen dena gero eta gutxiago dela aitortu beharrean nago. Mundua delako infinitua; baina guk munduan gauzak sartzeko daukagun gaitasuna, berriz, hiper-mugatua da. Izan daiteke atrofiatuta gaudelako. Atrofiatuta egotea izan daiteke hizkuntz egoera batengatik edo izan daiteke gizabanako bati prezeski dagokion egoera mental (a-mental) batengatik. Edo biengatik. Auskalo. Kontagarria al da giza ergelkeria? Hau da, a suit generis, posible al da gizakion ergeltasuna zenbatzea? Egiten ditugun ergelkeriak badirudi baietz, zenbakarriak direla (batzuek egiten dituztenak —gure agintarienak, kasu— zenbatzea lar zaila bada ere). "Lar". Ez zaizue inportako, ezta? Badakit nire euskarak zerikusi gutxi daukala azpieuskalkiarekin. Egia esan, zerikusi handiagoa dauka Azpigorri ahuntzarekin azpieuskalkiarekin baino. Baina, tira, hori da nire birtuteetariko beste bat. Hainbeste ditut... Eta eskuzabala naiz, eh! Nahi baduzu, maileguan utziko dizut baten bat. Interes-tasa berezia egingo dizut, zu zarelako. Begiko zaitudalako. Ez besterengatik... Eta holaxe doakigu denbora. Nonsenseriei buruz beti hizketan. Zeren gauza interesgarriak entzun nahi badituzu, ba piztu telebista, hauteskunde garaietan gaude eta. Hor ziur nago orriotan baino askoz gauza interesgarriagoak entzun ahal izango dituzula. Errepideak, etxebizitza, gazteen arazoak... Tira, dikzio arazoak badituzu, hor topatuko dituzu mihinari dantzarazten irakatsiko dizuten hainbat lagun. Nik nahiago dut filosofia. "Ekaemes" fenomenoa, esaterako, da nire

bizitzan aurkitu ditudan gauzarik interesgarrienetariko bat. Ez dakit zertan den. Eta hori da hartaz gehien gustatzen zaidana. Misterioa... ezezaguna... palurdokeria... Gainera, bi “Ekaemes” daude, bata da “ipar ekaemes” eta bestea, jakina, “hego-ekaemes”. Bi kontzeptu desberdin, muturrekoak, kontrajarriak... Baina gauza bat komunean dutenak: ez dutela ezertxo ere esan nahi; benetan. Ez dute inongo esanahirik. Kontua da noizbait asmatu beharra dagoela kontzeptu bat edo beste. Lehenik, hitza asmatu behar diozu kontzeptuari, eta gero, barrutik bete (bokata bat balitz bezala). Gero, pazientzia piska batekin, gero eta kontzeptu (bokata) gehiago asmatzen joango zara, zuk bakarrik ulertuko duzun kontzeptuteria (puzkerteria) bildu arte. Horiek dira “eskola” sortzeko eman-beharreko lehen urratsak. Eta azkenak, seguraski; ez baitizu inork jarraituko. Egia esan, hor dago koxka. Jarraitzaileengan. Beti jarraitzen diote beste edonori, bati baino. Bekaizkeriagatik egingo dute. Auskalo. Jendea horrelakoa da. Jatorra. “Sañuda”. Jasanezina. Ulergaitza. Baina horretarako gaude gu, filosofoak. Horretaz ohar daitezen. Egun guztia gogor-gogor lan egiten ari direnei norbaitek esan behar die asto urrikalgarri batzuk baino ez direla, lanaren esklabu direla eta lanaren alienaziopean bizi direla. Gu, filosofoak, egun puta guztian egonean gaudenok, Popeye baino alferrontziagoak garenok, horretarako gaude, zuri laguntzeko. Emaiguzu botoa. Ez zaitut gogogabetuko. Soil-soilik afusilatuko zaitut, deskuidatzen zarenean. Hori da

guk filosofo anti-euskaldunak eskerrak emateko daukagun modua. Zer grazia, ezta? Jakituria kontua baino, beste zerbait da. “Azkarra”, “espabilatua” izatearekin du zerikusia. Unibertsoa da izugarri handia baina gure lotsagabekeriak txikitxo uzten du Jainkoaren obra handia. Politiko guztiak filosofoak gara. Karpanta hutsak. Beti ari gara uzkurrarekin amesten. Gure urdaiazpikoetaz maiteminduta gaude. Zenbat eta txerriagoak gu, orduan eta garestiagoa gure haragia. Izter oneko jendea —barka, jendilajea— gara. Batzuek nahiago dute apolitikoa izatea. Beste batzuek, berriz, aukeratu ere egin gabe dira paralitiko. Inor pozik ez egotea da kontua. Hori da bizitza honen zentzua: pozik ez egotea inoiz. Behin sortuz gero, desegin egin beharra dago dena, berriro ere hasteko. Hori da unibertsoaren zurrunbiloan dabilen gai bakarra. Eta gu gai horretatik sortuak gara. Nire trilogia kabitzen da trikornio baten barruan. Edo pixontzi batean. Edo zulo beltz batean. Hori da nire meritua eta aldi berean nire meriturik eza. Gaizki hasten dena ondo bukatzen baita. Eta ondo hasten dena gaizki bukatzen baita. Edo ondo hasten dena ondo bukatzen baita. Edo ondo hasten dena ez da bukatzen ez ondo ez gaizki, halamoduz baizik. Edo... Permutazioak. Badakizue zer diren, ezta? Infinito matematikoaren barregarrikeriak. Denbora pasatzeko atseginak direnak. Baina, hori, denbora pasatzeko soilik. Tira, argia itzali eta etxetik alde egin beharra daukat, jada ez baitaukat ezta elektrizitatea ordaintzeko ere. Bizitza hori da. Faktura luuuuuze bat. Batzuetan ordaintzen dena

eta beste batzuetan ordaintzen ez dena. Baina bukaera bat-bera da beti denontzat: bota egiten gaituzte. Eta eskuak poltsikoan sartuta, axolagabekeriaz txistuka ibiltzen hasten garenean, ez dakigu aurrean zabaldu zaigun bideak noraino eramango gaituen. Hor hasten da benetako bidaia. Eta hori da hainbesteko beldurra sartzen diguna. Hastea. Benetakoari heltzea. Txit gustora bizi baikara gezur itzel honen erdian. Gu bai gezurrontzi galantak!

## III

Leloturik daukat bihotza, inoiz bihotzik izan badut. Uste dut gorri-kolorekoa dela, biguna, taupadatsua... Bihotzaren ordez, “Atun Calvo” lata bat izatea gustatuko litzaidake. Ez dakit. Nahasita nago. Idatzi nahi dut eta aldi berean ez dut idatzi nahi. Gidoia, elkarrizketak... —Eta orduan, Ferminek esan zion...—. Uf, hori ez, mesedez. Txorradak esateko, egin dezagun famili bazkaritxo bat. Txorrada kupoa beteko dugu eta bapo elikatuko. Zer gehiago nahi dugu, ba? Beti ari gara amesten gure iraganarekin : hau eta hura egin izan bagenu, zer tontoak izan ginen, esan izan banio... Tira, musikan erromantizismoa ongi dago, baina literaturan eta bizitzan... “Ez dit koadratzen”. Ez da nire errua, benetan. Lehengo egunean txo batekin aritu nintzen euskaraz-edo hizketan, eta behin eta berriro esaten zuen “Eske ez dit koadratzen, tío”.

Nik beti izan dut erraztasun handia, gainera, okerrak neureganatzeko. Odolean daramat. Gauzak ondo egitea debekatuta banu bezala. Patua. Greziarren patua eta euskaldunena. Biak. Bata lehiatila batean eta bestea beste batean. Zigilu eta guzti jartzen dizute, bekokian, ipurdian... Gero, faktura igorriko dizute etxera, BEZaren %16 gehituta (legearen arabera, aizu). Jende gutxik daki benetan zer nahi duen. Baina jakingo balute ere, ezer gutxirako balioko lieke. Horrek frogatzen du jakiteak ala ez jakiteak ez daukala inongo garrantzirik, ondorioak bat-berak dira eta. Beti dira bat-berak. Aldaezinak dira. Saia zaitez mendia mugitzen. Eraikitzaile baten seme-alaba ez bazara, jai daukazu. Hemen izugarrikeria handiak egin izan dira, aurrerapenaren izenean (progresoaren izenean, esan nahi dut), gizartearen onuraren izenean, herritarren ongizatearen izenean... Eta emaitzak hor daude: Itoitz, Vandellos, Operación Triunfo, Futbolaren Liga... “Masokista samarrak garelako; sadiko samarrak garelako. Horregatik, emaiguzu botoa”. Horra nire alderdi politiko berriaren hauteskunde-leloa. Polita, ezta? Gutxienez, hiru boto lortzea espero ditut. Bata nirea, noski (transfugismoari aurre egitea lortzen badut, behintzat); beste bat, amonarena (laurogeita hamabost urte bete zituenetik, nor naizen ere ez baitu gogoratzen); eta azkenik, betiko despistatuarena (milioi bat botuemaileen artean egongo da baten bat, nahi zuen papeletaren ordez, nirea deskuidoan sobrean sartuko duena, ezta?). Hiru botu. Gutxi, bai, baina kalitate handikoak

hirurak. Azken finean, garrantzitsuena ez da kantitatea, kalitatea baizik. Hori edozeinek daki. Nik neuk, esaterako. Lagunok, inoiz ez duzue sentitu den-dena bukatu izan balitz bezala? Ez dakit... barrutik erabat hustuta egongo bazinate bezala? Ba, nik ez. Baina gertatu izan bazaizue, has zaitezte kezkatzen. Dena dela, inoiz gertatu izan ez bazaizue, orduan ere hasi areago kezkatzen. Tira, kezka gaitezen biziki, arrazoi batengatik edo besterengatik. Berdin dio horrek. Kontua da kezkaturik egotea. Ez duzula kezkaturik egoteko inongo arrazoirik? Beno, ba orduan kezka zaitez arrazoirik gabe. Esaterako, noirbait asko maite baduzu, nahitaez aurkitu behar al duzu arrazoi bat, zure maitemintze-prozesu organikoa azaltzeko? Eta arrazoi hori aurkitu izan ezik —demagun, dialektikaren ikuspegitik eskas samarra zarelako—, zure bihotzeko kuttunarekin daukazun amodiozko harremana bertan behera uzteko betebeharra izango ote duzu, akaso? Ba, akaso bai, astakilo; akaso bai. Ala zer uste duzu, den-dena dakizula? Nik baino hobeto dakizula zer komeni zaizun? Harroputz halakoa! Ai, gerra bizi izan bazenu... goseak akabatzen egotea zer den jakin izan bazenu... enborrak birrintzeko makina batean erori izan bazina... burdina urtzeko galdara erraldoi batean jausteko zorte txarra izan bazenu... Hala ere, zer da “zortea”? Ez al da kontzeptu zinez subjektiboa? Azter dezagun gai hau, merezi du eta. Pentsa dezagun norbait zuhaitz-enborrak birrintzeko makina batean erortzen dela; harengandik gelditu den zatikirik handiena sudurretik atera ohi dugun

muki baten parekoa da orain. Ondo da. Jarrai dezagun. Pentsa dezagun orain pertsona hori ordura arte oso zoriontsua izan dela edo berak uste zuen ordura arte oso zoriontsua izan zela, birrinduta geratu arte alegia. Eta orain jo dezagun, esaterako, Afrikara; eta aukera dezagun txiki-txikitandik zoritxarra besterik ezagutu ez duen norbait: gosea, gerra, heriotza bortitza, izurriak, jipoiak, tortura... besterik ezagutu ez duen norbait; eta egun batean, nekearen nekez edo, bere txabolan hiltzen dena, senidez ingururatuta. Ikusten denez, heriotza bortitz edo izugarri baten berri daukagunean, pertsona hori oso zoritxarrekoa izan dela pentsatzera lerratzen gara ia denok, izan duen akabera inkontzienteki haren bizitza osoarekin identifikatzen dugularik. Inportanteena, ordea, ez da sokaren muturra, soka bera baizik... Bitxia da. Konturatu al zarete? Bazirudien benetan edo ari nintzela. Nire “pentsamenduei” buruz ari naiz. Pentsatzea gauza txit onuragarria da. Galdetu, bestela, behiei. Galdetu, bai... Joan eta galdetu. Eta entzun ondo haien erantzuna, behien erantzuna. Eta saiatu, eztabaida luze baten bidez, haien arrazonamenduaren aurka egiten. Saiatu, bai... Eta esnatzen zaretenean, Arrasateko ero-etxean zaudetela ikustean, ez harritu, kabroi horiek. Izorrante halakoa! Behiekin hizketan aritu ostean, gugana etortzea ere botu eske! Holakorik! Bota zaitzatela lehoietara (posible al da “lehoietara” esatea “lehoiengana”ren ordez?). Gainera, begira zer gertatu zaidan zure kulpagatik, arazo filologiko larrietan amildu nauzula! Bapo arraioa!

Harrapatzen bazaitut, hil egingo zaitut. Kristoren jipoia emango dizut. Txiki-txiki eginda utziko zaitut. Joño! Ez dago eskubiderik. Ni hemen den-dena ematen, eta zu hor behiekin hizketan, kabroitxo. Hitz egin manbo beltzekin, ba. Hitz egin horiekin. A, ez zara ausartzen, ezta? Ba, begira, nik gauza bat baino ez dizut esango: Andromeda galaxia Esne galaxiarengana (-rengana ala -rantz?) datorrela, bai eta ziztu bizian etorri ere. Milaka urte batzuk barru izango da hori, eta gure planetatxoa horren ondorioz "lekuz aldakatuko da". Beno, ba, entzun zer esaten dizudan: hori guziori gertatzen bada (eta gertatuko da, zeren Pitagorinek bere kalkuluak aterata baitauzka), zure erruz izango dela. Beraz, hasi zure aseguru-etxearekin poliza berri bat tramitatzen. Eta badakizu, galaxien arteko talka gertatzen denean, abesti ospetsuak dioena egin "Piensa en mí, etc.". Tira, zer iruditu zaizu hirugarren atal hau? Pattal samarra ezta? Ba, ez dakit, doktora zaitez zerbaitean. Ez zaitez geratu hor geldi, irakurtzen, liburuak bildumatzen, etxeko liburutegitxoari apalak gehitzen. Atera zaitez kalera, mundura, bizitzara... Borroka zaitez zugatik eta zure jendeagatik. Eta gero, hil zaitez. Hori bai, zarata handixegia atera gabe, please (batzuetan, nire bururako hitz egiten dudala iruditzen zait).

## IV

Itxi egin behar dut. Dena. Bizitzara agertzen diren lehiatilak eta inora agertzen ez direnak. Aitortu behar dut: lehortu egin naiz. Ezertaz jakiteko interesa aienatu zait. Gizon ezkorra bilakatu naiz. Horregatik idazten dut. Zu ere gizon/emakume ezkor bilakarazteko asmoz. Nire amak beti esaten zuen larriki gaixo dagoen jendeak besteak ere gaixo ikusi nahi dituela, eta beraiekin kontuz ibiltzeko, saiatuko baitira euren gaixotasuna besteei kutsatzen, helarazten (kutsagarria izanez gero). Ez dakit. Depresioa ote da kutsagarria? Birus bat ez ote da izango? Ala kable bat, hor nonbait "suelto"-edo geratu dena? Psikiatrari deitu beharrean, "txispa"ri deitu beharko genioke, hala balitz. Eta hala ez balitz, zer? Ezer ez. Plater bat babarrun bati begira nago, eta igerileku batean erortzeko zorian banengo bezalaxe sentitzen naiz. Hori Sartre-rengandik jaso berri dudan goragalekeria baino ez da. Nik egia esan Sartreri esango nioke Flaubert, Zola, Balzac edota Victor Hugo-rengandik ikasteko nola idatzi behar den nobela bat, benetan. Literatur filosofia horiek inora ez doazelako inpresioa sortarazten didate: ez lurrerako ez zerurako. Bide huts batean amaitzen dira (bidé batean dutxa hartzea bezala...). Nire gorputza puskatzen ari da azken boladan. Zureari ere gertatuko ahal zaio gauza bera! Desira onak txarrak dira kolesterolerako. Benetan. Zintzoa izateak potolo bihurtzen zaitu, manteka kiloak eransten, zoriontsu bilakatzen. Eta konturatzen zarenerako, zeruan zaude, berrehun kiloko aingeru harpa-jole egina, aguretuta, enmierdatuta...

Purutasunaren aurpegi ezkutua hori da. Gutaz ezin dugu ezer espero. Berriro ere nire alde ezkorrarekin zigortu nahi zaitut, makilatu nahi zaitut. Esango dizut nire bizitzako helburua zein den: hamabi mila orritik gorako liburua idaztea. Hamabimila orri, Biblienak bezain finak, letra-motarik txikienarekin idatziak... Liburu bat, existentzia osorako bazka emango dizuna. Liburutan diru gutxi gastatu nahi dutenentzako oso-oso aproposa. Gainera, liburu bera hainbat modutan irakurtzeko aukera ere emango dizut. Bazpare bukatuko bazenu, liburu berri bat erosi-beharrik izan ez dezazun. Ez dakit ideia ona irudituko zaizun. Dena den, badakizu txulo samarra naizela eta besteen iritziak ez ditudala aintzat hartzen. Azken finean, denak bezala jokatzen dut nik ere. Disimulorik gabe baina. Zibilizazio apur bat falta zaidalako seinale. Hipokresia baita gizaki zibilizatuaren ezaugarri nabarmenetariko bat. Azken batean, hiltzeko modu asko daude. Heriotza fisikoaz harantzago, badira beste heriotza-mota batzuk, askozaz sibilinoagoak, zorrotzagoak, mendeku on bati hobekixe dagozkionak. Heriotza publikoa, esaterako. Heriotza zibila, heriotza politikoa, heriotza soziala... Den-dena dago heriotzaz beteta. Batekin nahikoa izango ez bagenu bezala, ez dakit zenbat heriotza-gehiago asmatu behar. Lekuak, kokapenak, ezaugarriak, elkarrizketak, deskribapenak... Txorradak. Asma itzazue zuek zeuek. Hori ongi dago lotara joateko. Ardiak zenbatzea baino dibertigarria da eta. Ardiak. Janaria. Egunen batean, janaria laborategietan

ekoizteko gai izango gara. Egun horretan, askeak izango gara. Gure burmuina hiru bider handiagoa egingo da, eta leku gehiago beharko duenez, burua gorantz haziko zaigu, kono itxura hartuz. Gero, milaka urte batzuk barru, burmuinak nanoteknologiaren bidetik joko du, eta hasiko da txikiagotzen, funtzio konplexuagoak eta sofistikatuagoak garatuko baditu ere. Ez dakit. Bururatu zait. Igoal kristoren txorrada da... Eta zer? Bururatzen zaigun guztia ez al da txorrada handi bat? Baina hortxe dago gakoa, txorradak asmatzea, ideiak izatea... Inportanteena ez da zer esaten dugun, zerbait esatea baino. Zarata ateratzea ere deitzen zaio horri. Eta bai, zarataren premia dugu. Zarata da bizirik iraunarazten gaituena. Zarata da etengabe sortarazten duguna, ondokoari aditzera emateko bizirik gaudela, zer-edo-zer komunikatu beharra daukagula. Orduan, bronka hasten da. Odola, oihuak, labainkadak, tiroak, gerrak, altxamenduak, konkistak, genozidioak... Benetako aurpegia akaso. Nori axola? Guri, europar hipokritei? Bai, egia esan, idazteko kristoren gogoa daukat. Idazteko gogoa zomorroa bezalakoa da. Nigan bizi da. Ezkutatuta bizi da, baina, beharrak hartaratuta. Aldiz, aukera edukita, berehala ateratzen da gainazalera. Bien bitartean, nire gorputz barruan ibiltzen da, mutur batetik bestera, harrapatzen duena marruskatzen, horzkatzen, erdi-jaten, usteltzen... Hori da heriotza. Birus bat. Barruan daramagun zomorro bat. Animalia bat azken batean. Hil dezagun birusa eta heriotza hilko dugu. Eta eternoak izango gara. Ez dakit. Nire

idazteko gogoa hori da. Zomorro horixe da. Eta nik barrutik atera nahi nuke, nire gorputza oinazeztatzeari utz diezaion. Baina ez da erraza. Eta erraza balitz ere, niretzat zaila litzateke. Ez idazteagatik berez –hori ekintza naturala baita nigan– baizik gainerantzekoagatik. Erantzukizunak, bizi-beharra, soldata... Bestela, berehala aterako litzateke. Istorioak. Nork nahi ditu asmatu? Nik. Beno, neurri batean. Istorio klasikoak, istorio modernoak, istorio abstraktuak, indarrezkoak, maitasunezkoak... Berdin zait. Istorio-mota guztiak dira ederrak. Horiek gabe ez du merezi bizitzeak. Baina jakinda ere, ezin saihestu langile-patua. Nondik atera astialdia horretan jarduteko? Bien bitartean, zomorroak nire gorputza jarraitzen du zeharkatzen alderik alde, bere bidean den-dena marruskatzen, horzkatzen, zauritzen, ziztatzen, pozoitzen... Nik nonbaitetik esan nahi nioke ateratzeko, emanzipatzeko, nire haragietatik independizatzeko. Baina ezin. Zomorroak esaten dit horretarako utzi behar diodala nire burua zigortzeari, dirua irabazteari, erantzukizunez jokatzeari, errealista izateari, probetxuzko gizona izateari... Gauza gehiegi dira zomorroak eskatzen dizkidanak. Ezin heldu leku guztietara garaiz. Batzuetan, huts egin beharra dago. Eta nik horixe egitea erabaki dut: huts egitea. Huts egitea beti. Lehen, orain eta gero. Nire etsai eskas eta mediokreek zeri heldu izan dezaten. Azken batean, horixe nahi dute beraiek: hildako baten kontura afari ederra egin. Ba, tori afaria! Irents nazazu eta nirekin batera irents ezazu nire zomorroa.

Aurrerantzean, zurea izango da. Eta barrutik zure haragiak horzkatzen, zimeltzen, zauritzen, pozoitzen, belzten, usteltzen jarraituko dut. Haragi-jale bihurria! Kanibal guztien patua izango duzu zeuk ere: besteen jana izatea. Noizbait! Bai, zerua lurrera erortzen denean, eta zeruak bere haragi zimelak erakusten dizkigunean. “Egun horretan, jakingo duzu iragana eta geroa izan naizela”. A, poeta horiek... Zer egingo genukeen beraiek gabe!

## V

Hementxe nago, bosgarren atal bakarti eta traidore honetan, pentsamendu berezien edota ezohikoen zain, erne-edo... Hori ez al da idazle baten jarrera? Ez, ez da “idazle baten lana”. Idazle baten lana idaztea da, baina idazteko, jarrera egokia behar du. Bahetu behar ditu burura datozkion pentsamenduak. Orduan, idazleak bere ahotsa aurkitzen du. Eta horixe da niri gertatu berri zaidana. Ez dakit aurreko ataletan zer idatzi dudan. Ez dakit aurreko ataletan nire benetako ahotsak hitz egin duen, pentsamenduak (“idazle-pentsamenduak”) benetan bahetu ditudan, inkontzienteki egin ote dudan... Hobe hala balitz, bestela... aurreko guztiak ez luke piperrik ere balioko. Hauxe ere posible litzateke nobela batean aplikatzea. Areago, nobelagilea bazara, horixe egin beharko zenuke. Kontua da nik ez dakidala zehatz-mehatz nobelagilea ote naizen, nobelagilea izan

nahi ote dudan. “Prosalaria”, “prosa-egilea”, “prosa-sortzailea”. Prosa da, azken batean, nire bidea, nire gurutzea. Batzuetan, itxaron egin behar da, nahi dugun pentsamendua bidera ateratzen zaigun arte. Orduan, berriro heltzen diogu heldu-beharrekoari. Azken batean, zer da irudimena hitzen errepresentazio apetatsua baizik? Zer da irudi bat, hitz baten kontestu grafikoa baizik? Galdetu ere egin genezake, zer izan zen lehen: irudia ala hitza, kontzeptua ala errepresentazioa? Egia da, gizakia ez dela izadiko lehen izakia izan. Beraz, irudiak, errepresentazioak izan dira lehenak. Baina hor badago akats txiki bat: gizakia existitzen ez zen izadia ez zaigu interesatzen, ez digu balio hitz/kontzeptuen arteko gatazka hau konpontzeko. Berdion dio. Ez dut ezer konpondu nahi. Soiol-soilik “V. atala” da une honetan nire bizitzako helburu bakarra. Gainerakoa, zarata. Beharbada, “karpetakada” eman beharko nioke kontu itsusi honi. Eta liburu berria hasi. Oraingoan, bai. Nobela bat. Benetako nobela bat. Pertsonaia batzuekin, elkarrizketa batzuekin, deskribapen batzuekin. Badakizue. Nobela bat. Baina batzuek diote –adituek gainera– nobela gainbeheran dagoela, kito dagoela. Hori horrela balitz, beste zerbait asmatu beharko genuke (prosa itxurako beste zerbait, zeren zinema egitea, hori, beste kontu bat da). Agian, goiko atalak irakurri beharko nituzke, jakiteko aurretik zer idatzi dudan. Hilabeteetan itxita izan dut liburu hau gordetzen duen artxiboa. Gure bizitzak ere antzekoak dira. Artxibo batean gordeta izaten ditugu. Noizean behin ireki, egin-

beharrekoak egin, eta berriro ixten dugu. Akaso, gizakion programa informatikoak gara. Eta zabaldu ezin gaituen programa batean erortzen garenean, orduan hil egiten gara. Hala ere, egin gaituenak ezin izan du eragotzi gure zahartzea. Horrek esan nahi du berea ere ezin izan duela eragotzi. Sortzailearen isla gara. Gu ere sortzaileak gara. Gauza asko asmatzen ditugu. Baina ezin dugu eragotzi asmatzen ditugun gauzak ere zahartzea, gu bezalaxe. Beraz, gauzak gure isla dira. Eta gu, sortu gaituenaren isla gara. Eta irla. Karakterizatzen gaituen bakardadeagatik diot hori. Bitxia, nire pentsamendu hau zeinen pulituta dagoen... Badirudi azken urteotan punta edo atera diodala. Zein ote da, ordea, erabili dudan zorrozkailua? Itzulpen teknikoarena? urteek besterik gabe ematen dutena? “esperientzia”? Alde handiegiak ez lirateke sortarazi beharko “Liburúki” honetako atal desberdinen artean. Bai, badakit “desberdin” hitzak arazo batzuk sortzen dituela, batzuetan. Baina ez beti. Eta kasu honetan, agian, ongi erabilita dago. Behintzat, “hainbat” hitzarekin ezin da ordezkatu. Dena den, egia da, liburu honetako atalak “desberdinak” direla. beraz, garbi dagoenez, zertarako azpimarratu? Hitzaren erabilera erredundantea gaizkoatzen du kasu honetan “desberdin” hitzaren erabilera, baina ez besterik. Tira, urte batez Euskal Filologian izena emanda egon nintzen. Nabari dadila, piska bat sikiera. Urteak orrialdeak bezala igarotzen dira. Ez dute bueltarik. Eta hainbeste bizitakoa iruditzen zaigu zapata-kaxa batean sartzen dela. Diotenez,

unibertsoa sortu aitzinean, zapata-kaxa batean kabitzen zen. Gero, zabaldu egin zen. Eta egunen batean, berriro txiki-txiki egingo da, eta berriro ere zapata-kaxa batean kabituko da (baldin-eta zapata-kaxa horren barruan sartzeko norbait balego!). Hor ere garbi azaltzen da gu Sortzailearen (Unibertsoaren) isla garela: Unibertsoa bera sortu zen une jakin batean, gu ere une jakin batean sortu (jaio) ginen bezala; eta garatu ostean (gu ere hazten garen bezala), noizbait amaierara iritsi (zahartzarora gu) eta zapata-kaxa baten barruan sartzeraino txiki-txikia egiten da (gu katabut baten barruan galtzen garen bezala, edota errauts-urna baten barruan...). Hileta-moduko pentsamenduak dira hauek. Alai gaitezen bosgarren atalaz. Helduko zaigu-eta, negar egiteko garaia. Garai horiek berez etortzen dira. Ez zaie deitu behar. Malkoak gorde behar ditugu behar denerako. Malkoak. Zeinen gaziak. Gizonon hazia ere gazia da. Hauxe bai grazía. Gizon konplikatua. Zu, irakurtzen banauzu (ez horregatik); ni, zuk badiozu (ez dago zeri, benetan). Gaur zurikeriatan aritzeko gogoarekin heldu omen diot orritxo honi. “Orritxoa”. Baina ezin da ukitu. “Orri eletroniko” hauek ezin dira ukitu. Desagertuz gero, arrastorik utzi gabe desagertzen dira. Armarik onena, hiltzaile eskrupulosoarentzat. “Arrastorik uzten ez duen arma”. Handika ere fabrikatuko balituzte... Hondartzan lurperatu eta zapaltzerakoan, Bounba! Hitz-leherketa. Bati, “H” letra begitik sartu; beste bati, “T” letra ipurtzulotik (zehiarka gainera!); beste bati... Bueno, nahikoa da. Txantxa txiki bat

izan da. Tontakeriak pilatuta dauzkat eta nola-hala atera egin behar. Azkeneko aldia da, mota honetako literatura egiten dudan hauxe. Lehendik, “Trataktum Filosofikus Sakonis” eta “Gaueko Abentura” izan ziren. Eta orain “Liburúki, pasió baten historía”. Ia-ia lotsa ematen dit esateak, baina benetako trilogia da. Berez atera da; berez joan da osatzen, forma hartzen. Batzuetan, egin nahi duguna bideratzen dugu; eta beste batzuetan, egin nahi dugunak bideratzen gaitu. Beraz, zenbaitetan gidariak eta beste hainbatetan gidatuak gara. Egilea eta tresna aldi berean. Salneurria eta salerosgaia. Bietan bat. Gure herri zatikatua ez bezala. Baina akaso aurkituko al dugu egunen batean batzen gaituen gauza hori. Eta egun horretan ez da beranduegi konturatzeko, ezen, uztartzen gaituena eskura daukagula, gerora itxaron beharrik gabe. Lotura ikustezinak dira botereak eta borondate txarrekoek apurtu ezin dituztenak. Den-dena gelditzen da hor, biziaren ostean ere zabuka bezala, zerutik euriaren ordez aurrekoen oroitzapenak, hitzak, desirak... eroriko balira bezala. Bai, nobelak sortzea ongi dago. Eta horixe egingo dut hemendik aurrera. Trilogia honek nire ahotsa aurkitzen lagundu dit; horretarako izan zait baliagarria. Baina ez du zentzurik, monosilaboak norberaren ahots bilaketaren zerbitzuan jartzea, hola, besterik gabe, ariketa bezala interesgarria izan arren, bai idazlearentzat bai irakurlearentzat (nahiz eta, gauza guztiekin bezala, honekin ere “zenbat buru hainbat aburu” esapideak erabateko balioa izan). Dena den, zergatik asmatu behar dugu gidoi bat, garapen bat,

amaiera bat... ahotsak berak berekin matazaren gainerakoa dakarrean... Eta haritik tiraka eta tiraka ibiltzea... Inoiz ez dakizu matazaren beste muturrean zer agertuko zaizun: hariaren punta, bere arruntkeria izugarri osoarekin; ala beste zerbait topatuko ote dugun, sorpresa polit bat... Istorio bat, esaterako. Ez istorio hortodoxo horietako bat; gauzak kontatzeko beste modu bat. Eta, behintzat, jarrera bat. Azken finean, zer da literatura “zarata” baino? Areago, zer gelditzen da zaratarik gabeko literaturaz? Elkarrizketa-multzo bat? Gertaera jakin batzuk? “Ronroneo” erdal hitzak oso ongi ematen du aditzera buruan dabilkidana, literaturari dagokionez. “Marmara” alegia. Marmararik sortarazten ez duen liburua akaso poliziakoa izango da... Eta guk aspalditik utzi genion polizia-lapurren istorioetan sinesteari. Pentsa, Jainkoarengan sinesteari ere utzi diogu... Bai, barregura ematen digu. Pentsatzeak. Hauxe da atal honek eman behar zuen guztia, zalantzarik gabe.

(Nobela honek ez du sekula ere jarraituko)
(Batzuek trilogiak egiten dituzte horrelako zaborreriarekin)

# HATZAPARKADA POETIKOAK
# ARAÑAZOS POÉTICOS

**-1-**

Baliteke bizitza
ez izatea uneoro
inguratzen gaituen
angustiaren errepresentazio
grafikoa baizik.

Baliteke gu
ere ez izatea
angustia horren isla
poetikoa baino,
lore txiki bat
bezain arruntak
eta zaurikorrak.

Ikustea galarazten
didana apartatu dut
eta errealitatearen
irrealitatea
azaldu zait,
kafesne batean
bezala,
goizean goiz,
jada denak
joanak direnean,
eta kafesneari
lurrina dario…

eta ez dakigu
hor zergatik gauden.

(05-5-15)

**-2-**

Habitualmente
somos como
realmente inhabitualmente
no lo solemos ser.
Una buena razón
para retirarnos
a reflexionar,
que es una forma
de estropear nuestra
capacidad de ser felices
al tiempo que ponemos
a prueba nuestra
paciencia y sobre todo
nuestra capacidad
de sufrimiento.
Una antigua idea
cristiana…
Ahora, que nada
merece la pena.
Ahora, que este humanismo
raquítico y cercenado...
Por favor,
abandóname
a la primera de cambio.

Y que no se hable más.

(05-5-15)

**-3-**

Aquí, en medio de la nada,
he descubierto
que hasta la nada
ocupa espacio
y que aquello
que juzgamos
anodino
es una forma más
de subsistencia.
–¿En qué consiste
la inspiración?–
me pregunto.
Y la respuesta es
siempre la misma:
"En una excusa para
no irse a dormir".
O la sensación
hiper-nostálgica
de un recuerdo-evasión
huido ya hace
mucho-mucho
tiempo.
La claridad
de la poesía
es siempre oscura.

Estamos
atrapados
al final del verano.
Y la radio
permanece en silencio.
Ahí fuera
también
la naturaleza
se obstina en callar.
Un silencio
cómplice
de algo…
que ha traspasado
la raya
dibujada en el suelo,
en medio de un gesto
de piedad humana,
trasegada,
arrojada a un mar
antiguo
y razonablemente
irracional.
El mejor compañero
para nosotros,
EL HOMBRE.

(05-05-15)

**-4-**

Falta la decisión final

el camino que se desenrolla
bajo la luz acristalada
de la niebla.
¿Y qué somos ahí en
medio de esa nada
sino el rostro iluminado
por un instante
   en la nada infinita
de la noche?
La nieve. Todo es nieve
alrededor. La nieve que
penetra en todos los rincones
de nuestros pensamientos,
de nuestros recuerdos de chocolate [blanco],
de niñez atrapada en una esfera,
con la noche ya caída
ahí fuera.
Pero el cuchillo del recuerdo
  corta la sombría tela
que ocultaba ese instante
  y todos los instantes.
Hemos sentido los susurros
palpitar atrozmente en un
trozo de algo de nosotros.
  La sorpresa nos ha atacado
con saña.
El periódico se ha deshojado
de todas sus patrañas.
   Quedamos solos,
inmersos en nosotros,
   como una despedida
colgada para siempre de

nuestros recuerdos.
Algo ha pasado.
Pero todo permanece
imperturbable.
Escucho la nieve
caer
y me sorprende
aún más
ser capaz
de escuchar el
silencio
el enjambre de
furiosas ideas
en que nos hemos
[convertido].

(05-6-12)

**-5-**

Los libros leídos
son como tierras/gentes
que se hayan
quedado
ausentes/mudas.

(05-6-18)

**-6-**

El imprescindible rodamiento
cuyo engranaje nos fuerza
[a circular]
en redondo.
Mientras,
el roedor nos observa
con mirada obscena,
un deje de alquitrán
en su expresión.
Los rudimentos
han fabricado
su discurso, su fuente sacrificada
al azafrán
y sobre la arena roja
un sinfín de recuerdos
devorados por las voraces gaviotas.
En mis ojos,
lágrimas sucias,
de alquitrán.

(05-6-18)

**-7-**

El retroceso marchito de las
horas;
dejan un reflejo de recuerdos
restablecidos penosamente
y rehabilita ideas
arrojadas hace ya tiempo
al reciclaje de sí mismas,

impelidas y reprimidas
  en el refugio de las referencias
plateadas,
  el río de palabras
reducto de lo único verdadero
  que poseemos:
    nuestro rectangular pasado,
trazado y redactado
    en el castillo de un sueño,
poco antes de dar
   por finalizadas
 las referencias,
 las cantinelas,
 los refectorios de ideas encorvadas,
 duplicadas,
    cuyo diseño –otrora temible–
se torna ahora patético y
    prácticamente
       indescriptible.
  Sólo queda el asilo
              de la reflexión.
    El resto,
sea remitido
         al rediseñador.

(05-6-20)

**-8-**

Basta de cavar hondo
  en la piedad

almidonada
del cazador de engendros,
maquinando siempre
la última palabra,
desenrollando
arsenales de
terminologías
inacabables,
límpidas
o
putrefactas
–¿qué más da?–
si el sentido de
la vida
nunca lo vamos a averiguar
(y conste
que ya me hastía
esta rima facilona
y pueril).

(05-6-24)